



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko martxoaren 21a

41. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, 767.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena Nafarroako Gobernuarentzat bigarren Informatika Zentroa (DPZ) sortu eta ezartzeko gastuak, 2014koak, finantzatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzi du prozedura zuzenean eta irakurketa bakarrean izapidetzea (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako landaguneetako biztanleek kalitatezko osasun-laguntza edukitzeko prestazioak eta eskubideak. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren erabakia, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordearen irizpeneko konklusioak (6. or.).

—Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordearen irizpenaren eztabaidan bazterturiko boto partikularrak (21. or.).

—Prestazio Handiko Trenari buruzko erabakia. Osoko Bilkurak onetsia (32. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestakuntza-ekintzak bidera ditzan helduen hezkuntzan esku hartzen duten agenteentzat. Osoko Bilkurak onetsia (32. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak lehendakaria gaitzesten da, egiazkotzat jo baitu Guardia Zibilararen ustezko txosten bat, Barne Ministerioak dioenez existitzen ez dena, eta Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio erantzukizunak argitu ditzan, kargu instituzionalek emandako informazio okerrak direla eta. Osoko Bilkurak onetsia (33. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen edo herrilurretako bideen arauketa homogeneo bat adostu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (33. or.).

—Gobernu Irekiari eta Teknologia Berriei buruzko erabakia. Osoko Bilkurak onetsia (34. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakitekoa zein urrats egin behar dituen Nafarroako Gobernuak, saihesteko foru erkidegoan ezar dadila larrialdikoa ez den osasun garraioaren koordainketa. Galdera erretiratzea (35. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 767.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena Nafarroako Gobernuarentzat bigarren Informatika Zentroa (DPZ) sortu eta ezartzeko gastuak, 2014koak, finantzatzeko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DU PROZEDURA ZUZENEAN ETA IRAKURKETA BAKARREAN IZAPIDETZEA

Legebiltzarrak, 2014ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea prozedura zuzenean eta irakurketa bakarrean izapidetu dadin foru lege proiektu hau: "Foru Lege proiektua, 767.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena Nafarroako Gobernuarentzat bigarren Informatika Zentroa (DPZ) sortu eta ezartzeko

gastuak, 2014koak, finantzatzeko." Beraz, prozedura arruntean izapidetuko da.

Erabaki hau argitara dadin agintzen da, Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikulua xedatutakoa betez.

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 75.1 artikulua ezarri zuenez, seme-alabarik gabeko familia-unitateek zuten lehentasuna bi urtera bitarteko haurren adopzio nazionalean. Irizpide horrek, praktikan, bi urtera bitarteko haurrak adoptatzea eragozten zien egoki deklaraturako hainbat familiari, seme-alabak zituztelako.

Lehentasun hori egokia ez zelakoan, Nafarroako Parlamentuak foru lege proposamen bat aurkeztu zuen, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena, bi urtera bitarteko haurren adopzio nazionalean lehentasuna kentzeko seme-alabarik gabeko familia-unitateei.

Seme-alabarik gabeko familien lehentasunari eusteko behin-behineko araubide bat ezarri zen foru lege horren xedapen iragankorrean, lege hori onetsi aurretik adopzioarako legezko baldintza eta izapide guztiak –besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak aitortutako egokitasun psikologikoa eta soziala izatea– beterik zituzten baina adopzioa egiteko deia zain zeuden familien egoera errespetatze aldera.

Foru legearen xedapen iragankor hori aplikatzean, ordea, testuaren interpretazio desberdinak egin dira, foru legeak indarra hartzerakoan adoptatzeko zerrendetan inskribatuta zeuden pertsonen lehentasun-hurrenkera gordeko dutela adierazten baitu.

Beraz, ez dadin uler seme-alabarik gabeko familiek betiko izanen dutela bi urtera bitarteko haurrak adoptatzeko lehentasuna, xedapen iragankorraren testua egokitu beharra dago, halako moduan non seme-alabarik gabeko familia horiek, hau da, foru legeak indarra hartu zuenerako Nafarroako Adopzioen Erregistroan inskribaturik egon eta Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak adopzioarako egokitasun psikologikoa eta soziala aitortua zutenek, bi urtera bitarteko haurrak adoptatzeko lehentasunari gehienez ere bi urtez eutsiko baitote, martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea onetsi zenetik kontaktzen hasita.

Bi urteko epea amaitutakoan –edo lehenago, martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea onetsi aurretik egokitzat baloratu ziren familia guztiei ordurako haur bat esleitu bazaie edo adoptatzeko baldintza guztiak betetzeari utzi badiote–, adopzio prozedura abiatzeko eskaera noiz aurkeztu zen begiratuko da eta eskaeren ordenaren arabera erabakiko da Nafarroako Adopzioen Erregistroko zerrendako lehentasun-hurrenkera.

Artikulu bakarra. Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra aldatzen da. Hona testu berria:.

“Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra.

Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Adopzioen Erregistroan inskribaturik dauden eta Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak adopzioarako egokitasun psikologikoa eta soziala

aitortu dien seme-alabarik gabeko familiek bi urtera bitarteko haurrak adoptatzeko lehentasunari bi urtez eutsiko diote, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Epe hori amaitzen denean, edo familia horietakoren bati adingabeen adopzioarako eskaintzaren espediente artxibatzen bazaio indarra duen antolamenduan aurreikusitako arrazoiengatik, Nafarroako Adopzioen Erregistroan eskaintza inskribatu den egunaren arabera zehaztuko da lehentasun-hurrenkera.”

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako landaguneetako biztanleek kalitatezko osasun-laguntza edukitzeko prestazioak eta eskubideak.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2014ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Amparo Viñuales Galé andrea ordezkari duen Nafarroako Udalen Legegintza-ekimenerako Udalbatza Sustatzaileek aurkeztutako Foru Lege proposamena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako landaguneetako biztanleek kalitatezko

osasun-laguntza edukitzeko prestazioak eta eskubideak.

Proposamen hori 2014ko otsailaren 11ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren erabakia, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordearen irizpeneko konklusioak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 62.7 artikulua ezarritakoarekin bat, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko 2014ko martxoaren 13ko Osoko Bilkuraren Erabakia, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordearen irizpeneko konklusioak.

Iruñean, 2014ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren Erabakia, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordearen irizpeneko konklusioak

I. AURREKARIAK.

Lehena. Nafarroako Parlamentuak, 2014ko otsailaren 13an eginiko Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko ikerketa batzorde bat sortzea, ondoko gai hauek ikertzeko:

“Bat. Nafarroako kontuen egoera, 2011tik izan duten bilakaera eta defizit-helburua betetzeko politikak aplikatzearekin duen lotura.

Bi. Nafarroako Gobernuak lehendakariak emandako jarraibideak, BEZaren itzulketak geroratzekoak, hartara legez ezarritako epeak urratuz; eta jarraibide horiek Nafarroako ekonomian izan dituzten ondorioak.

Hiru. Foru Ogasunaren zuzendari kudeatzaile ohiak egindako akusazioak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak Foru Ogasunaren independentziaren aurka etengabe esku hartzeak –saialdi mailan– buruzkoak.

Lau. Foru Ogasunaren zuzendari kudeatzaile ohiak egindako akusazioak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak eta Nafarroako Gobernuak lehendakariak legezko babesa duen informazio pertsonala eskatu izanari buruzkoak.”

Bigarrena. 2014ko otsailaren 17an Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa batzorde (hemendik aurrera “Ikerketa Batzorde”) horren osara, antolaketa eta jardunari buruzko arauak onetsi zituen. Aipatu arauak 2014ko otsailaren 17ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Hirugarrena. Ikerketa Batzordea 2014ko otsailaren 18an eratu zen, kide guztiak bertan zirela, eta foru parlamentari Lizarbe Baztán jauna hautatu zuen batzordeburu. Nafarroako Parlamentuko legelari Nekane Iriarte Amigot andrea aritu da Batzordeko idazkari.

Laugarrena. Ikerketa Batzordea otsailaren 18, 19, 21, 24, 25, 26, 27 eta 28an bildu da. Ikerketa Batzordeak hainbat erabaki hartu ditu, dokumentazioa eta informazioa eskatzeak eta zenbait pertsonaren agerraldiei buruzkoak. Honako hauek dira:

1.- 2014ko OTSAILAREN 18ko ERABAKIA:

“Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordeak, gaur egindako bilkuran, honako erabaki hauek hartu ditu:

Bat. Honako pertsona hauek Ikerketa Batzordearen aurrean ager daitezen eskatzea:

Idoia Nieves Nuin andrea, Ogasuneko teknikaria Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuan. (otsailaren 21ean, 10:00etan)

Juan Francisco Franco Pueyo jauna, Aurrekontuko zuzendari nagusia, eta María Jesús Valdemoros Erro andrea, Politika Ekonomiko eta Enpre-

sarialaren zuzendari nagusia. (otsailaren 24an, 09:00etan).

Manuel Arana Soret jauna, Ogasuneko teknikaria Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuan. (otsailaren 24an, 11:30ean).

Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak. (otsailaren 24an, 17:00etan).

Yolanda Barcina Angulo andrea, Nafarroako Gobernuako lehendakaria. (otsailaren 25ean, 10:00etan)

Bi. Nafarroako Gobernuari ondoko dokumentazioa igor dezala eskatzea:

1. Akta, halakorik badago, edo gainerako edozein dokumentu, Gobernuako lehendakariak, 2012ko urriaren 10ean Ekonomia eta Ogasun Departamentuko ekonomia lantaldearekin egin zuen bilerari buruzkoa. Adierazi nor egon zen bilera horretan.

2. Akta, halakorik badago, edo gainerako edozein dokumentu, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko ekonomia taldeak 2012ko azaroaren 8an egin zuen bilerari buruzkoa. Adierazi nor egon zen bilera horretan.

3. Nafarroako Zerga Ogasunaren txostena, 2012ko azaroaren 8ko bileran aurkeztua eta BEZaren itzulketak geroratzeko lau aukera planteatzen zituen.

4. Foru aginduak, ebazpenak, jarraibideak, zuzentaruak edo barne-zirkularrak, 2012ko urriaren 10eko eta 2012ko azaroaren 8ko bilkurretan aztertutako gaien inguruan Ekonomiako kontseilariak sinatu dituenak.

5. Defizita betetzeak 2012ko urriaren 10ean zuen egoerari buruzko txostena.

6. Politika Ekonomikoaren zuzendaritza nagusiaren txostena, Ekonomiako kontseilariari 2012ko azaroaren 15ean emana, non agertzen baitzen BEZaren itzulketa geroratzek zer eragin negatibo izanen zituen Nafarroarentzat.

7. Idoia Nieves andreak prestatu eta Ekonomiako kontseilariak 2012ko azaroaren 23an sinatutako dokumentua, zeinetan agintzen baita, defizitaren helburua betetzeko, BEZaren itzulketa batzuen geroratzea, 2013ko aurrekontuaren kontura itzul zitezten.

8. 2012ko apirilko eta maiatzeko aldietan BEZaren itzulketak kobratzeke zituzten enpresen zerrenda (zenbatekoa 50.000 euro baino gehiagokoa bazen, eta kreditu fiskala finantza entitate bati laga ez bazioten). Enpresa horietatik bi zerrenda

banandu: BEZaren itzulketak geroratu zitzaizkien enpresena, eta geroratzerik izan ez zutenena.

9. CAN zenaren inguruko gaiak ikertzen ari diren epaitegiek Nafarroako Gobernuari 2013ko lehen seihilekoan igorritako ofizioak, eginbideak eta errekerimenduak.

10. Goicoechea lehendakariordearen jarraibidea, enpresa jakin bati hilabete jakin baten itzulketa geroratzekoa, oinarritzen duen agindua, erabakia edo dokumentua. Dokumentuaren data: 2012ko azaroaren 23an.

11. 2012an BEZa itzultzeko legezko epeak ez betetzeagatik Nafarroako Zerga Ogasunak ordaindutako berandutza-interes zenbatekoa.

12. BEZaren itzulketa geroratzeko erabakia hartu ondoren Nafarroako Zerga Ogasunera egindako telefono-deien kopuruaren erregistroa.

13. Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko irailaren 27ko txostena, adierazten duena zenbat diru gehiago bilduko zen zuzeneko diru-bilketan, doitzeak gehituta (251 milioi euro), baldin eta 2012ko aurrekontuan itzuli izan balira, eta ez 2013koan, BEZari zegozkion 90 milioi euro gehiago.

14. Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko abuztuaren 30eko txostena, komertzializazioaren aldaketaren eraginari eta Nafarroarentzako inpaktua 25 milioi eurora mugatzeari buruzkoa.

15. Hitzarmen Ekonomikorako Batzorde Koordinatzailearen 2012ko maiatzaren 7ko erabakia, Volkswagenean BEZari buruzkoa.

16. Erabakia, frogatzen duena Ekonomia Departamentuak 2013an proposamen bat egin izana, BEZaren itzulketak egozteko irizpide bera aplikatzekoa zerga berezien doikuntzen erregularizaziorako ere.

17. Euskarri dokumentala, 2013ko maiatzean Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioarekin BEZa egozteko irizpide berrien inguruko lehen kontaktuetan Ekonomiako Kontseilariak izandako jarrerari buruzkoa.

18. Ministerioaren eta Nafarroako Zerga Ogasunaren artean 2013ko apirilean zerga berriak hitzartzeko izandako bilera teknikoaren akta. Adierazi nor egon zen bilera horretan.

19. 2013ko irailaren 18an Ogasuneko Ministerioari igorritako dokumentua, hitzarmen ekonomikoa arautzen duen legearen testuari egindako behin-behineko aldaketak biltzen dituen.

20. Dokumentua, Estatuaren jarrera, 2014ko martxoko zeharkako zergen erregularizazioa 2013ko abenduan ordaintzearen aldekoa, eta 2015eko martxokoa 2014ko abenduan ordaintzearen aldekoa (200M€ aurreratzea), egiaztatzen duena.

21. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoko 67. artikuluan aurreikusitako Batzorde Koordinatzailearen 1/2013 akta, 2013ko abenduaren 19koa, oso-osorik eta hitzez-hitzez. Erabaki horren bidez Nafarroari 200M€ aldez aurretik ordaintzea ahalbidetzen da.

22. Zerga Ogasunaren Ikuskapen Plana, 2011ko irailaren 27an indarrean zegoena.

23. Zerga Ogasunak 2012ko lehen astera arte aurreikusitako ikuskapen eta erregularizatzeko jarduketak, Nafarroako Unibertsitatearen eta zentro horrekin lotutako langileen gainekoak, gai horri buruz Idoia Nievesek Legebiltzarreko agerraldian eta Lourdes Goicoecheak aurtengo otsailaren 12an, asteazkenean, prentsaurreko batean egindako adierazpenak direla-eta.

24. Zerga Ogasuneko ikuskaritzak 2011tik 2013ra bitarteko aldiari Almanaque, S.L. eta Marchi, S.L. enpresei dagokienez, egindako jarduketan espediente osoa.

25. Parlamentutik Nafarroako Gobernuari igorritako ahozko eta idatzizko galderak eta informazio eskaerak, Nafarroako Kutxako kontseilariari eta haiek, kontseilari nahiz profesional gisa, jasotako ordainsariei buruzko informazioaren gainekoak. Nafarroako Gobernuak emandako erantzunen zerrenda. Galdera eta erantzun bakoitzarekin hura egin edo eman zen data jaso behar da.

26. Goicoechea kontseilariak 2013ko irailaren 11n eta egun horren aurreko zazpi egunetan bere bulegoan izan zituen bisiten sarrera-erregistroa.

27. Goicoechea kontseilariaren lan-agenda, 2013ko irailaren 11koa eta egun horren aurreko zazpi egunetakoa.

28. Fiskalitate Zerbitzuaren txostena, Nafarroako Kutxari buruzko isilpeko datuak partikularrei emateak dituen inplikazio guztien balorazio juridikoa egiten duena. Txostenean hori eskatu zen data, eskatu zuen arduraduna eta txosten-ematearen data jaso behar dira.

29. Goicoechea kontseilariak 2013ko apirilaren 22an jaso zuen mezu elektronikoa, aipatu txostenaren kopia zeramana.

30. Idoia Nievesek 2013ko urriaren 3an egindako txostena, aurreko sei urteetan Zerga Ogasunak

Osasunari buruz egindako jarduketak xehetasunez biltzen dituena.

31. Goicoechea kontseilari andreak Ekonomia Departamentuko idazkari nagusi teknikoari eskatutako txostena, ostalaritzako establezimendu jakin batzuei egindako auditoria informatikoko jarduketan legezketasunari eta Ogasuneko ikuskaritzak jarraitutako protokoloari buruzkoa.

32. Idoia Nieves andrearen dimisioaren aurretik Gobernuak egindako bilkuraren gai-zerrenda, aurreko astean Quorum sisteman sartutakoa.

33. Gobernuko lehendakariak legea urratuz BEZaren itzulketak geroratzeko emandako jarraibideak biltzen dituzten era guztietako dokumentuak.

Hiru. Nafarroako Gobernuari, Lourdes Goicoechea Zubelzu Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariari eta Idoia Nieves Nuini ondotik datozen dokumentuak igor ditzatela eskatzea:

1. Idoia Nievesek 2013ko ekainaren 20an Goicoechea kontseilariari igorritako mezu elektronikoa, Ogasunak Nafarroako Unibertsitatea zela-eta egindako jarduketan datuei buruzko informazioa ematen zuena.

2. Goicoechea kontseilariak, Idoia Nievesek aurretik bidalitakoari erantzunez, data berean igorritako mezu elektronikoa.

3. Lourdes Goicoechea Zubelzu Nafarroako Gobernuko Lehendakariordeak eta Idoia Nieves Nuin Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzaile ohiak edukitako komunikazioak (oharrak, mezu elektronikoak, gutunak...), joan den otsailaren 11n, Legebiltzarrean, zuzendari kudeatzaile ohiak azalduko egitatei buruzkoak.

4. Idoia Nieves andrearekin, bere agindupean Ogasuneko zuzendari kudeatzaile izan den denboran, izandako mezu elektroniko eta komunikazio guztiak –jasotakoak edo bidalitakoak–, salatu diren injerentzia saialdiekin zuzeneko zerikusia dutenak.

Lau. Nafarroako Gobernuari, Yolanda Barcina Angulo andreari eta Lourdes Goicoechea Zubelzu andreari honako hauek eskatzea:

1. Nafarroako Gobernuko lehendakariak eta lehendakariordeak edukitako komunikazioak (oharrak, mezu elektronikoak, gutunak...), joan den otsailaren 11n, Legebiltzarrean, Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzaile ohiak azaldu zituen egitatei buruzkoak.

Bost. Idoia Nieves Nuin andreari ondoko dokumentazioa igor dezala eskatzea:

1. 2014ko otsailaren 11n Parlamentu honetako Ekonomia, Industria, Ogasun eta Enplegu Batzordean izandako agerraldian aipatu zituen txosten, dokumentu eta mezu elektronikoko guztiak.

2. Estatuarekin BEZa doitu eta erregularizatzeari dagokionez, 2011, 2012 eta 2013. urteetako egoera zehazten eta eskematizatzen duen informazioa, zergadunei BEZaren itzulketak geroratzeari ekarritako ondorioak azalduta.

3. Yolanda Barcina andrearengandik Batzordearen aztergaien inguruan jasotako jarraibide, agindu, iradokizun edo ohar guztiak.

Sei. ELA/STV sindikatuari eskatzea Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian aurkeztu duten salaketaren kopia igor dezala.

Zazpi. Kontuz elkarteari eskatzea Auzitegi Gorenean aurkeztu duen salaketaren kopia igor dezala.

Zortzi. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari eta Nafarroako Zerga Ogasunari honako hauek eskatzea:

1. Zerga Ogasunak 2011, 2012 eta 2013. urteetan egindako ikuskapen guztien zerrenda.

2. Conservas Almanaque, S.L.ri egindako ikuskapenaren espedienteak, eta Ogasunaren ziurtagiria, jakitekoa kasu honetako ikuskapena indarra duten legeen eta araudiaren arabera egin den, prozesuko epeei dagokienez ere.

3. Legebiltzarrean otsailaren 11n Nieves Nuin andreak azaldu zituen egitateekin zerikusia duten espediente administratiboak.

4. Club Osasunak 2007tik 2013ra Ogasunari egindako ordainketei buruzko txostena, ordainketak urtearen arabera xehakaturik ("Nafarroako Erresuma" babes jardueraren kontura egindako ordainketak sartu gabe).

5. BEZaren itzulketek 2010etik 2013ra, bi urteak barne, izan duten bilakaerari buruzko txosten kualitatiboa eta kuantitatiboa, urtearen arabera xehakaturik.

6. Txostena, 2013an zehar zuzeneko diru-bilketari buruz egindako aurreikuspenei buruzkoa, horien barne, 2013ko abendura arteko gastuaren goiko muga ezartze aldera egindako aurreikuspenak (2012ko abuztua).

7. Txostena, jakitekoa 2012ko uztailetik orain arte egindako ikuskapenak, legeen eta arau-prozeduren arabera egin ote diren.

8. Ogasunera igorritako kexa-gutunak, 2013ko udazkenean ostalaritzaren sektorean egin ziren ikuskapen-jarduera mota berrien gainekoak.

9. BEZaren itzulketa geroratu zitzaizen enpresetatik jasotako komunikazioak, eta hori zela eta abiarazi ziren espedienteak, ondorio ekonomikoak ere barne.

9. Navarra TVri honako hau eskatzea:

1. Dagokion epaitegian aurkeztutako adiskidetzere-demandaren kopia.

2. Yolanda Barcina andrearengandik Batzordearen aztergaien inguruan jasotako jarraibide, agindu, iradokizun edo ohar guztiak.

Hamar. CaixaBank eta Nafarroako Kutxa Fundazioa entitateei eskatzea Nafarroako Gobernuak edo Gobernuko edozein kidek, Nafarroako Aurrezki Kutxako langile eta kontseilari guztien ordainsaria ezagutzeko asmoz, igorritako ofizioen edo komunikazioen kopia, eta, halaber, hornitzaile eta bezero guztiek egindako kobrantzen eta ordainketen kopia, 3.005 euro baino gehiagokoak direnena.

Hamaika. Lourdes Goicoechea Zubelzu andreari, Nieves Nuin andreari eta Iruñeko "El Mercao" jatetxeari eskatzea 2011ko irailaren 27an aipatu lekuan Goicoechea Zubelzu eta Nieves Nuin andreak egin zuten bazkariaren faktura.

Hamabi. Nafarroako Gobernuari informazioa eskatzea, jakite aldera diru publikoaren kontura ordaindu ote zen 2011ko irailaren 27an "El Mercao" jatetxean egin eta Goicoechea Zubelzu eta Nieves Nuin andreak parte hartu zuten bazkariaren faktura.

Hamahiru. Conservas Almanaque, S.L. enpresari honako hauek eskatzea:

1. Enpresan izan zen lan istripu baten ikuskapenaren akta.

2. Conservas Almanaque, S.L. enpresan izandako la istripuari buruzko medikuaren gaztigua.

Hamalau. Foruzaingoari honako hau eskatzea:

1. Foruzaingoak Andosillako Conservas Almanaque, S.L. enpresan gertatutako lan istripuari buruz egindako txostena.

15. Navarra TVri honako hau eskatzea:

1. Lourdes Goicoechea Zubelzu Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak Navarra TVn Osasunaren zorrari buruz egindako elkarrizketaren transkripzioa. Ogasuneko zuzendari kudeatzaile ohiak otsailaren 11ko agerraldian aipatu zuen hori"

2.- 2014ko OTSAILAREN 19ko ERABAKIA:

“Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordeak gaur erabaki du Nafarroako Gobernuari/Nafarroako Zerga Ogasunari honako hauek eskatzea:

1. Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko idazkari nagusi teknikoak emandako txostena edo txostenak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren eskumen, eskudantzia, arduraren, betebeharen eta obligazioen eta BEZaren itzulketak geroratzearen legezotasunari buruzkoak, igortzea.

2. Ondoko txosten hauek igortzea: 2012an eta 2013an zehar BEZaren zuzeneko diru-bilketari buruz egindako aurreikuspenen buruzkoak, hilabeteen, diru-bilketaren eta itzulketen arabera xehakatuak; 2010etik aurrera enpresei egindako BEZaren itzulketen bilakaerari eta itzulketen ordainketak geroratzearen legezotasunari buruzkoak; Nieves Nuin Zuzendari Kudeatzaile ohiak salatu zituen Nafarroako Zerga Ogasunaren ikuskapen jarduketan guztien legezotasunari buruzkoak; eta Club Atlético Osasunak 2007tik 2013ra Nafarroako Zerga Ogasunari, zorraren ordainketa gisa, egindako ordainketei buruzkoak (“Nafarroako Erresuma” babes jardueratik datozen zenbatekoak salbu), urtearen arabera xehakatuak.

3. Prentsan oihartzuna izan duen txosten juridikoa, Nafarroako Gobernuako lehendakariak, antza, PSOEko idazkari nagusi Pérez Rubalcaba jaunari igorri diona.”

3.- 2014ko OTSAILAREN 24ko ERABAKIA:

“2014ko otsailaren 24an, Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Bat. Nafarroako Gobernuari honako dokumentazioa erreklamatzeko, zeina otsailaren 20an eskatu baitziztaion:

1. Akta, halakorik badago, edo gainerako edozein dokumentu, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko ekonomia taldeak 2012ko azaroaren 8an egin zuen bilerari buruzkoa. Adierazi nor egon zen bilera horretan.

2. Nafarroako Zerga Ogasunaren txostena, 2012ko azaroaren 8ko bileran aurkeztua eta BEZaren itzulketak geroratzeko lau aukera planteatzen zituena.

3. Politika Ekonomikoaren zuzendaritza nagusiaren txostena, Ekonomiako kontseilariari 2012ko azaroaren 15ean emana, non agertzen baitzen

BEZaren itzulketak geroratzeko zer eragin negatiboa izanen zuten Nafarroarentzat.

4. Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko irailaren 27ko txostena, adierazten duena zenbat diru gehiago bilduko zen zuzeneko diru-bilketan, doitzeak gehituta (251 milioi euro), baldin eta 2012ko aurrekontuan itzuli izan balira, eta ez 2013koan, BEZari zegozkion 90 milioi euro gehiago.

5. Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko abuztuaren 30eko txostena, komertzializazioaren aldaketaren eraginari eta Nafarroarentzako inpaktua 25 milioi eurora muga-tzeari buruzkoa.

Dokumentazio hori berriro eskatzeko oinarri juridikoak honakoak dira:

Nafarroako Gobernuak bere ezezkoaren oinarriak 2014ko otsailaren 20ko idazki baten bidez eman ditu. Idazki hori Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko idazkari nagusi teknikoak sinatua dago, eta adierazten du gaur egun ezin dela igorri 2, 3, 6, 13 eta 14. zenbakietan eskatzen den informazioa, dokumentazioan zergadun jakinen zerga arloko datuak jasotzen direlako. Hala ere, dokumentazio hori igortzeko baimena eskatu zaie arduradunei.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua ezartzen duenez, foru parlamentariak, beren eginkizunak hobeki betetzeko, zilegi izanen dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, eta besteak beste bere erakunde publikoei, eskatzea administrazio horiek eginiko jarduketan ondorio diren datu, txosten edo administrazio-dokumentuak, baldin eta horiek igortzearekin ez badira urratzen datu pertsonalak babeste aldera legez ezarritako bermeak.

Eskatutako dokumentazioa ukatzen bada, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak adierazi beharko ditu eskaera betetzea eragozten dioten arrazoiak, “zeinek zuzenbidean oinarrituta egon beharko baitute.”

Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordeak dituen arauetan (28. NPAO, 2014 otsailaren 17koa), zortzigarrenak ezartzen du Ikerketa Batzordeak egiten dituen informazio- eta dokumentazio- eskaerak bete egin behar direla, hartzaileak jaso eta berrogeita zortzi orduko epean.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 105.artikuluak aipatu legero IV. tituluan, “Tributu arloko kudeaketa” izenekoan dago; hain zuzen ere III. kapituluak, eta bertan arautzen da tributu kudeaketaren prozedura, zein

netan sartzan baitira tributuak aplikatzeko prozedurak (autolikidazioak eta aitorpenak, salaketak, egiaztapenak eta konprobazioak, eta abar). Jarduketa horien guztien ondorioz Zerga Administrazioak "eskuratutako" datuak bildu eta biltegiratu egiten dira.

105. artikulua berak, tributu informazioaren izaera eta xedeak arautzen dituenean honako hau ezartzen du:

"105. artikulua. Zerga ondorioak dituzten datuen isilpeko izaera.

1. Bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta aginduz kudeatu behar dituen tributuak edo baliabideak benetan aplikatzeko erabiliko dira bakarrik. Ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo komunikatu, salbu lagapenak helburu hauek baditu:

a) Delituak ikertzea edo jazartzea, baldin eta jurisdikzio organoek edo Ministerio Fiskalak ezin badituzte jazarri laidotutako pertsonak eskatuta bakarrik.

b) Beste zerga administrazio batzuekin elkarlanean aritzea, beren eskumenen eremuan betebeharrak fiskalak betetzearen ondorioetarako.

c) Elkarlana, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzarekin eta Gizarte Segurantzako Entitate Kudeatzaileekin eta zerbitzu komunekin, Gizarte Segurantzako kotizazioan eta kuoten bilketan gertatzen den iruzurraren kontrako borrokan eta sistemaren kargurako prestazioak lortzeko eta erabiltzeko iruzurraren kontrakoan; orobat, Osasun Sistema Nazionalaren prestazioetan erabiltzaile bakoitzak egin beharreko ekarpenen maila zehazteko elkarlana.

Era berean, elkarlana Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuarekin, Osasun Sistema Nazionalaren erabiltzaileei eta onuradunei itzultzeko osasun arloko ekarpenen soberakinak.

Halaber, elkarlana Nafarroako Gobernuko dagokion departamentuarekin, zehazteko erabiltzaile bakoitzari zer ekarpen-portzentaje dagokion 'erabilera bereziko' Osasun Laguntza Zerbitzuaren prestazioetarako."

d) Elkarlana bestelako administrazio publikoekin, delitu fiskalaren kontra eta funts publikoen edo Europar Batasunaren funtsen kargurako laguntzak edo dirulaguntzak lortzeko edo jasotzeko iruzurraren kontra borrokatzeko.

e) Elkarlana parlamentuko ikerketa batzordearekin, legez ezarritako esparruaren barnean.

f) Jurisdikzio organoek edo Ministerio Fiskalak adin txikikoen eta ezintasunak dituztenen eskubideak eta interesak babestea.

g) Elkarlana Comptos Ganberarekin, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren fiskalizazio eginkizunen barnean.

h) Elkarlana epaile eta auzitegiekin, ebazpen judizial irmoak betearazteko. Informazio eskaera judizialean beharrezkoa izanen da berariazko ebazpen bat non, dagokion gaian interes publikoak eta pribatuak neurturik, eta zordunaren ondusun eta eskubideen existentziari buruz jakiteko gainerako bitartekoak edo iturriak agortzeagatik, arrazoitzen den zerga administrazioetik datuak biltezeko beharra.

i) Elkarlana, Diru arloko Arau Hausteei eta Kapital Zuriketari Aurrea Hartzeko Batzordearen Zerbitzu Betearazlearekin, Terrorismoa Finantzatzeko Jarduerak Begiratzeko Batzordearekin eta bi batzorde horien idazkaritzarekin, horien eginkizunen barnean.

j) Elkarlana, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan aurreikusi zen Arbitraje Batzordearekin, haren eginkizunak gauzatzean.

k) Elkarlana, tributu arlokoak ez diren baliabide publikoen diru-bilketa egiteko arduraren zuzendutako publikoko organo edo entitateekin, ordainketa egitera behartuak ongi identifikatzeko, eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiarekin, horiei jakinarazpenak egiteko, aipatutako baliabideak kobratzeko.

l) Estatistikan eskumena duten administrazio publiko eskudunek helburu estatistikoetarako datuak erabiltzea, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko. Informazio eskaeran justifikatu beharko da estatistika lanak zer helburu zehatz dituen tributudunen datuak lagatzea beharrezkoa izateko. Datu horiek, izatez ere, datu pilatuen txostenak egiteko erabiliko dira, eta ezin izanen dira banaka gorde.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako lagatze kasuetan, zerga arloko informazioa, ahal dela, bitarteko informatiko edo telematiko bidez eman beharko da. Administrazio publikoek informazio hori aipatutako bitartekoen bidez lortzerik badute, ezin izanen diete interesdunei exijitu informazio horri buruzko zerga administrazioaren ziurtagiriak aurkeztea.

3. Zerga administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu zerga arloko informazioaren konfidentzialtasuna eta haren erabilera egokia bermatzeko.

Datu, txosten edo aurrekari horiek ezagutzen dituzten agintariak edo funtzionarioek horiei buruzko erabateko isiltasuna gordeko dute horien gainean, salbu aipatutako kasuetan. Alde batera utzirik sor litezkeen erantzukizun penalak edo zibilak, isiltasunerako betebeharrak zehatz horretan arauak haustea diziplinako hutsegite oso larritzat joko da beti.

Ikusten bada delitu bat gerta daitekeela, eta hura ezin dela jazarri laidotutako pertsonak eskaturik bakarrik, orduan zerga administrazioak erruduntasun testigantza egiten du, edo delitu izan daitezkeen egintzen azalpena, inguruabarrak barne, igorriko dio Ministerio Fiskalari. Horretaz gain, dagokion prozedurari hasiera eman dakioko zuzenean, zerbitzu juridiko eskudunaren bitartez kereila jarritz.

4. Atxikitzaileek eta diru-sarrerak kontura egitera behartuek beste tributudun batzuei buruzko datuak, txostenak edo aurrekariak erabiltzen ahaliko dituzte soilik konturako diru-sarrerak egiteko betebeharrak zuzen betetzeko eta benetan aplikatzeko. Tributu bakoitzaren araudian aurreikusitako kasuetan, datu horiek zerga administrazioari komunikatu beharko zaizkio.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa kenduta, aipatutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpean gordetzekoak dira. Atxikitzaileek eta diru-sarrerak kontura egitera behartuek haiei buruzko isiltasunik handiena eta zorrotzena gorde behar dute.

5. Aurreko idatz-zatietan aurreikusitako esparruan, tributudunek artxibo administratiboetako erregistro eta dokumentuak ikus ditzakete, baldin eta espediente baten zati badira eta baldin eta, eskaera datarako bukaturik egonda, eskatzaileak esku hartutako prozedurei badagozkie espediente horiek?

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari esleitutako eskumenak indarreko legedia betez erabiltzea, "zuzenbide publikoko tributuak eta sarrerak kudeatzeari, ikuskatzeari eta biltzeari dagokionez, haien titulartasuna Foru Komunitateari badagokio", Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoaren ardura da (irailaren 3ko 119/2007 Foru Dekretua, eta hura ordeztu zuen otsailaren 12ko 19/2014 Foru Dekretua).

Adierazi denez, eskatu diren txosten eta dokumentuak –eta berriro eskatzen da horiek igortzea– honakoak dira:

1. Nafarroako Zerga Ogasunaren txostena, 2012ko azaroaren 8ko bileran aurkeztua eta BEZaren itzulketak geroratzeko lau aukera planteatzen zituena. (3. dokumentua)

2. Politika Ekonomikoaren zuzendaritza nagusiaren txostena, Ekonomiako kontseilariari 2012ko azaroaren 15ean emana, non agertzen baitzen BEZaren itzulketa geroratzek zer eragin negatibo izanen zituen Nafarroarentzat. (6. dokumentua)

3. Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko irailaren 27ko txostena, adierazten duena zenbat diru gehiago bilduko zen zuzeneko diru-bilketan, doitzeak gehituta (251 milioi euro), baldin eta 2012ko aurrekontuan itzuli izan balira, eta ez 2013koan, BEZari zegozkion 90 milioi euro gehiago. (13. dokumentua)

4. Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko abuztuaren 30eko txostena, komertzializazioaren aldaketaren eraginari eta Nafarroarentzako inpaktua 25 milioi eurora mugatzeari buruzkoa. (14. dokumentua)

eta

5. Akta, halakorik badago, edo gainerako edozein dokumentu, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko ekonomia taldeak 2012ko azaroaren 8an egin zuen bilerari buruzkoa. Adierazi nor egon zen bilera horretan. (2. dokumentua)

2014ko otsailaren 20ko idazkiaren bidez emaniko ezezkoak –gorago aipatu da idazki hori–, ez du eskatutakoa ukatzeko "zuzenbidean oinarritutako arrazoirik" ematen, eta hori da Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan eskatzen dena. Idazki horretan, aipamen lauso bat besterik ez da egiten: "...dokumentazioan, zergadun zehatzen datuak agertzen dira..."

2. eta 3. dokumentuek aipagai dituzten bilerekin egon ziren guztiak ez ziren Nafarroako Zerga Ogasunekoak izan, eta 6., 13. eta 14. dokumentuek aipagai dituzten txostenen egileak ere –txosten horiek eskatu dira– ez ziren erakunde autonomo horretakoak. Horrek adierazten du bertan agertzen diren datu fiskalak txostenetarako edo bileretarako datu instrumentalak baino ezin direla izan. Eta horrek hala behar du, nahitaez; izan ere, bestela, baimendu gabeko pertsonak zergadun zehatzen datu tributarioak izanen zituzten eskuekin.

Ez dirudi logikoa lerketa Batzordeari informazioa ukatzen zaion bilera edo txosten horietan "zerga-arloko datuak" agertzea balizko zergadun bati buruz. Edozein kasutan, halakorik balitz, enkriptatu egin litezke, eta batzorde honi interesatzen zaizkion edukiak bakarrik utzi ikusteko moduan.

Bi. Nafarroako Zerga Ogasuneko Tributuen Arloko Informazio Sistemen Zerbitzuari honako dokumentazioa eskatzea:

1. Zerrenda bat, bilduko duena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko zein pertsonak izan duten teknikoki aukera zergadunen datu fiskaletara sartzeko, sistema informatikoaren bidez, 2013ko martxoaren 1etik 2013ko maiatzaren 30era bitarte.

2. Zerrenda bat, bilduko duena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zein pertsona sartu ziren Nafarroako Kutxako 190 eta F50 eredu-tako aitortpenen edukietan 2013ko martxoaren 1etik 2013ko maiatzaren 30era bitarte.

Hiru. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari ondoko dokumentazioa eskatzea:

1. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak azken bost urteotan Zerga Ogasunaren ikuskaritza-jarduketei buruz eginiko txosten guztien zerrenda.

2. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren Zuzendaritza Nagusiak 2013ko irailaren 27an eginiko txostena eguneratzen duten txosten, taula edo koadroak.

Lau. Nafarroako Gobernuari eta Idoia Nieves Nuin andreari ondoko dokumentazioa igor dezaten eskatzea:

Idoia Nieves andreak dimisio-gutuna eta bere dimisioari buruzko mezu elektronikoa nori bidali zion eta dokumentu horiek zer ibilbide izan zuten agertzen duen informazioa.

Bost. Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Zerga Ogasunari ondoko dokumentazioa igor dezatela eskatzea:

Txosten bat, jasoko duena nork kontsultatu dituen Goicoechea andrearen datu fiskalak (izen-abizenak, identifikazioa eta zer unitate administratibokoa den) 2011ko uztailetik 2014ko otsailera bitarte”

4.- 2014ko OTSAILAREN 26ko ERABAKIA:

“2014ko otsailaren 26an, Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordeak honakoa erabaki du:

Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoari honako dokumentazioa erreklamatzeko, zeina otsailaren 19an eskatu baitzitzaion baina ez baitu igorri:

“33. Gobernuko lehendakariak legea urratuz BEZaren itzulketak geroratzeko emandako jarrai-

bideak biltzen dituzten era guztietako dokumentuak”

Dokumentazio hori berriro eskatzeko oinarri juridikoak honakoak dira:

Nafarroako Gobernuak bere ezezkoaren oinarriak 2014ko otsailaren 20ko idazki baten bidez eman ditu. Idazki hori Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko idazkari nagusi teknikoak sinatua dago, eta esaten du (lehen atalean) dokumentu hori ezin dela igorri “Arauen Garapen eta Fiskaliterako Atalak igorritako txostenean emandako arrazoiengatik”

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 14. artikulua ezartzen duenez, foru parlamentariak, beren eginkizunak hobeki betetzeko, zilegi izanen dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, eta besteak beste bere erakunde publikoei, eskatzea administrazio horiek eginiko jarduketan ondorio diren datu, txosten edo administrazio-dokumentuak, baldin eta horiek igortzearekin ez badira urratzen datu pertsonalak babeste aldera legez ezarritako bermeak.

Eskatutako dokumentazioa ukatzen bada, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak adierazi beharko ditu eskaera betetzea eragozten dioten arrazoiak, “zeinek zuzenbidean oinarrituta egon beharko baitute”

Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordeak dituen arauetan (28. NPAO, 2014ko otsailaren 17koa), zortzigarrenak ezartzen du Ikerketa Batzordeak egiten dituen informazio- eta dokumentazio- eskaerak bete egin behar direla.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 105. artikulua tributudatuaren isilpekotasuna arautzen du, eta, horri buruz, honakoa ezartzen du: “1. Bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta aginduz kudeatu behar dituen tributuoak edo baliabideak benetan aplikatzeko erabiliko dira bakarrik. Ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo komunikatu, salbu lagapenak helburu hauek baditu...”

Artikulu horrek beste hau ere ezartzen du: “Zerga administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu zerga arloko informazioaren konfidentzialtasuna eta haren erabilera egokia bermatzeko. Datu, txosten edo aurrekari horiek ezagutzen dituzten agintariak edo funtzionarioek horiei buruzko erabateko isiltasuna gordeko dute horien gainean, salbu aipatutako kasuetan. Alde batera utzirik sor litezkeen erantzukizun penalak edo zibilak, isiltasunerako betebeharrak zehatz horretan arauak

haustea diziplinako hutsegite oso larritzat joko da beti” (3. idatz-zatia).

Hau izan zen eskatutako informazioa: “Gobernuko lehendakariak legea urratuz BEZaren itzulketak geroratzeko emandako jarraibideak biltzen dituzten era guztietako dokumentuak”. Eta hori ez da sartzen Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 105. artikulua aipatzen dituenetan: “bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak”. Artikulu horrek aipagai dituen horiek, izan ere, isilpekoak izan behar dute (artikulu horren beraren 3. idatz-zatia). Horiek horrela, Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordeak erabaki du Nafarroako Foru Ogasuna erakunde autonomoari berriro eskatzea igor diezaiola dokumentazio hori Ikerketa Batzordeari, otsailaren 19an eskatu zitzaion moduan, eta ez denez informazio-eskaera egiten zaion lehenbiziko aldia, dokumentazio hori 2014ko otsailaren 27ko 12:00ak baino lehen ekar dezala.

5.- 2014ko OTSAILAREN 27ko ERABAKIA:

“2014ko otsailaren 27an, Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordeak honakoa erabaki du:

1. Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoari honako dokumentazioa erreklamatzeko, zeina jadanik otsailaren 25ean eskatu baitzitzaion:

“Txosten bat, jasoko duena nork kontsultatu dituen Goicoechea andrearen datu fiskalak (izen-abizenak, identifikazioa eta zer unitate administratibokoa den) 2011ko uztailetik 2014ko otsailera bitarte”.

2. 2014ko otsailaren 25ean, Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordearen bilkura batean, mezu elektronikoa bat erakutsi zen, 2012ko martxoaren 28ko data zuena –asteazkena–, 17:43an Idoia Nieves Nuin andrearen Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavillari bidalia.

Nieves Nuin andreari eskatzen zaio mezu elektronikoa osorik igor dezala, goiburuarekin, jakin ahal izateko erakutsi zen dokumentuan agertzen direnez gain beste inori ere bidali ote zitzaion mezu elektronikoa hori, bai eta zen den falta den partearen edukia.

3. Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Foru Ogasunari eskatzen zaie aipatutako dokumentazioa 2014 otsailaren 28ko 11:00ak baino lehen igortzea.

Era berean, Nieves Nuin andreari eskatzen zaio igor diezaiola Ikerketa Batzordeari dokumentazio hori 2014ko otsailaren 28ko 11:00ak baino lehen, egoki baderitzo”.

6.- TXOSTEN JURIDIKOAK ESKATZEA :

Ikerketa Batzordeak, otsailaren 19an eta 24an eginiko bilkuretan, erabaki zuen Batzordeko legegari idazkariari bi txosten juridiko eskatzea: bata, ebazteko ea “agerraldia egitera etorritako pertsonak edo, lagunduta etorriko balira, beraiekin batera etorritakoek erabiltzerik ba ote duten telefono mugikorrik edo Nafarroako Parlamentuan agerraldia egiten den gelatik kanpo daudenekin konektatzeko moduko bestelako gailurik”; bestea, berriz, “Nafarroako Gobernuari otsailaren 20an eskatu zitzaion eta igorri ez duen dokumentazio bat erreklamatzeko buruzkoa, adierazita zer arrazoi juridikok babes lezakeen eskaera hori, eta ebazteko, halaber, ea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldearen eskaera, 2014ko otsailaren 24an egin zuena, bat ote datorren Ikerketa Batzordeak bere arauetan zehaztua duen xedearekin”.

Txosten juridiko horiek otsailaren 19an eta 25ean eman ziren, eta Ikerketa Batzordeko kideei helarazi zitzaizkien.

7.- IGORRI EZ DEN DOKUMENTAZIOA:

Zenbait pertsona edo entitateri dokumentazioa eskatu, eta horren parte bat ez dute igorri. Ondoren doa igorri ez duten dokumentuen zerrenda, adierazita zer pertsona edo erakunderi eskatu zitzaizkien eta zer arrazoi eman dituzten ez igortzea oinarritzeko.

1. Nafarroako Gobernuak adierazi zuen, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko idazkari nagusi teknikoak 2014ko otsailaren 20an sinatutako idazki baten bidez, zeina Ikerketa Batzordeari 2014ko otsailaren 20an bidali baitzitzaion, dokumentazioaren parte bat, jarraian zehazten dena, ez zuela igorriko, ondoren aipatzen diren arrazoiengatik:

“Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2014ko otsailaren 18ko idazki baten bidez eskatutako informazio eta/edo dokumentazioari dagokionez, honakoa jakinarazten da:

Lehena.- Eskatutako informazioa ezin da igorri, Arauen Garapen eta Fiskalitateko Atalak igorritako txostenean emandako arrazoiengatik. Hain zuzen ere, honako zenbakietan eskatzen zen informazioa: 8., 10., 22., 23., 24., 30., 33., 39., 40., 41., eta 42. zenbakietan eskatzen zena.

Bigarrena.- Gaur egun, ez da posible 2., 3., 6., 13. eta 14. zenbakietan eskatu zen informazioa igortzea, zeren eta dokumentazio horretan zergadun zehatzen datu tributarioak agertzen baitira. Hala ere, dokumentazio hori igortzeko baimena eskatu zaie arduradunei.

Hirugarrena.- 4., 16., 18. eta 33. zenbakietan eskatutako dokumentazioa ez dago Departamentuko artxiboetan.

Laugarrena.- Departamentuko kontseilariak igorri du 34., 35., 36., 37. eta 38. zenbakietan eskatutako dokumentazioa. Departamentuko kontseilariak igorri du 34., 35., 36., 37. eta 38. zenbakietan eskatutako dokumentazioa.

2. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoechea Zubelzu andreak jadanik igorri dio, Ikerketa Batzordeari, eskatu zitzaion dokumentazioa; 7. puntuari dagokionez, idazki bat erantsi du, sinatu gabea, honakoa dioena:

“Ez dago horri buruzko inongo informaziorik”

3. Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari ohi Idoia Nieves Nuin andreak ez dizkio Ikerketa Batzordeari igorri Batzordeak 2014ko otsailaren 18an eskatu zizkion dokumentuak (1. eta 2. zenbakietakoak). Izan ere, dienez, dokumentu horien eskaerak ez ditu betetzen abenduaren 9ko 21/1994 Foru Legean ezarritako baldintzak. Bestalde, 8. zenbakikoa ere ez du igorri, dokumentu hori ez baitauka.

4. Nafarroako Gobernuak, 2014ko otsailaren 27ko idazki baten bidez, zeina Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko idazkari nagusi teknikoak sinatua baitago, eta Ikerketa Batzordera 2014ko otsailaren 27an helarazi baitzen, berriro 2014 otsailaren 25ean erreklamatu zitzaion dokumentazioaren parte bat igorri du, baina ezezkoa esan dio beste zenbait dokumentu igortzeari, honako arrazoiengatik:

“Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2014ko otsailaren 25eko idazki baten bidez eskatutako dokumentazioari dagokionez –idazkia erantsita doa–, honakoak igortzen dira:

1. zenbakitik 4. zenbakira bitartekoetan eskatutako dokumentazioa (3., 6., 13. eta 14. dokumentuak). Dokumentazio horretatik kendu egin da kasuko zergadunen identifikazioa, enpresa interesdunek ukatu egin baitute beraiei buruzko datu tributarioak erabiltzeko baimena.

Dokumentazioa igortzeko ofizioan –2014 otsailaren 20koa–, Nafarroako Parlamentuari adierazi zitzaion egina zegoela baimen-eskea, eta

orain jakinarazten dugu ukatu egin zaigula baimen hori.

5. zenbakiko eskaerari dagokionez (2. dokumentua), adierazi behar da aipatzen den bilerako aktarik ez dagoela; dokumentuak erantsi dira, eta bileran zein egon zen.”

5. Nafarroako Gobernuak, 2014ko otsailaren 27ko idazki baten bidez, ezezkoa esan dio honako informazioa bidaltzeari: “Idoia Nieves andreak dimisio-gutuna eta bere dimisioari buruzko mezu elektronikoa nori bidali zion eta dokumentu horiek zer ibilbide izan zuten.” Ezezkoa ematearen arrazoa izan da “eskaerak izaera pertsonala” duela; eskaera “pertsona interesdunari igorri zitzaion, eta ez du orain arte inolako erantzunik eman.”

6. Nafarroako Gobernuak, 2014ko otsailaren 27ko idazki baten bidez, ezezkoa esan dio honakoak bidaltzeari: “zerrenda bat, bilduko duena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko zein pertsonak izan duten teknikoki aukera zergadunen datu fiskaletara sistema informatikoaren bidez sartzeko, 2013ko martxoaren 1etik 2013ko maiatzaren 30era bitarte”, bai eta “txosten bat, jasoko duena nork kontsultatu dituen Goicoechea andrearen datu fiskalak (izen-abizenak, identifikazioa eta zer unitate administratibokoa den) 2011ko uztailetik 2014ko otsailera bitarte.” Arrazoa da ez dagoela lotura materialik eskatutako informazioaren eta Ikerketa Batzordearen xedeen artean.

Bigarren aipatzen den informazioa igorri du Nafarroako Gobernuak, 2014ko otsailaren 27ko idazki baten bidez; Ikerketa Batzordeak egun horretan bertan egina zion eskakizuna.

8.- AGERRALDIAK:

Ikerketa Batzordearen bilkuretako batzuetan, zenbait pertsonaren agerraldiak izan ziren, informatzeko.

Bilkura horiek ondoren aipatzen diren egun eta orduetan egin ziren:

Idoia Nieves Nuin andrea, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaile ohi eta Tributu Ikusapenerako Zerbitzuko ogasun-teknikaria, otsailaren 21ean, 10:00etan.

Juan Francisco Franco Pueyo jauna, Aurrekontuko zuzendari nagusia, María Jesús Valdemoros Erro andrea, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusia, eta Pedro Ugalde Zaratiegui jauna, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko idazkari nagusi teknikoak, otsailaren 24an, 09:00etan.

Manuel Arana Soret jauna, Nafarroako Zerga Ogasunaren Plangintza eta Kontrolerako zuzendari ohia eta Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuko ogasun-teknikaria, otsailaren 24an, 16:30ean.

Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria, otsailaren 24an, 18:30ean.

Yolanda Barcina Angulo andrea, Nafarroako Gobernuako lehendakaria, otsailaren 25ean, 16:00etan.

II. GERTAKARIAK.

Lehena. 2012ko azken hiruhilekoan hartutako erabakiek, BEZaren itzulketak sei hilabete baino gehiago geroratzekoek, defizit-helburuaren betekizunak betetzeko eta, alderdikieriaz jokatu, Alderdi Popularraren politika asetzeko helburu hutsa zutenek, kalte larria eragin diete Nafarroako enpresei eta enpleguari, eta -251 milioi euroko aurrekontu-desdoitze bat ekarri dute. Erabaki hori hartu izan ez balitz, defizit-helburua arinki baizik ez zen urratuko, eta nazioaren eta autonomia erkidegoen testuinguruan inongo ondorio praktikorik ez zen gertatuko. Gainera, jokabide horrek erakusten du Nafarroako Gobernua ezgai izan dela hartutako erabakien ondorioak aurreikusteko.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuako lehendakari Barcina andreak "agindutako" erabaki hori, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Goicoechea andreak erabakien bidez gauzatuakoa, hartu zen Nafarroako Zerga Ogasunak eta Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren Zuzendaritza Nagusiak neurri horien ondorio negatiboak buruz lau aldiz eginiko ohartarazpenak gorabehera. Erabaki horiek, bestalde, ezkutuan gorde ziren, zeren eta ez baitzitzaizkien jakitera eman ez Nafarroako Parlamentuari, ez ukitutako enpresei, ez Nafarroako gizarteari. Erabaki hori hartu baino lehen, gainera, ez zen bildu Nafarroako Zerga Ogasuna Erakunde Autonomoaren Gobernu Kontseilua.

Hirugarrena. Halaber, erabaki horrek berarekin dakar zergadunen BEZa sei hilabeteko epean itzultzeko legezko betebeharra ez betetzea, eta hori zerga-arloko legekontrakotasun bat da, Tributu buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 88. artikuluari jarraituz, kasuan kasuko zergeri buruzko arauetako artikulua muntadunei eta Kode Zibileko 1101. artikuluari jarraituz.

Halaber, jadanik urtebete igarota, ez da bete berandutza-interesak ordaintzeko betebeharra; izan ere, ukitutako zordunen parte txiki bati baizik ez zaizkio ordaindu.

Laugarrena. Arestian aipatutako testuinguruan, bidegabeki geroratu da Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren negoziaketa; ez da zerga berririk hitzartu; eta, 2013ko azaroan, 2014., 2015. eta 2016. urteetarako defizit helburuak eta zorpetze-maila itundu dira, Alderdi Popularrako Gobernuaren jarraibideak onartuz eta egiazko negoziaketarik egin gabe; izan ere, Rajoy jaunaren Gobernuak 2013ko uztailean hartutako erabakiak onartu besterik ez da egin.

Bosgarrena. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak lau aldiz esku sartu eta injerentziak egin ditu Nafarroako Zerga Ogasunaren jardunbideetan, Nafarroako Unibertsitatearen kasuan, non izugarritzat eta jukutriatzat jo baitzituen zerga ikuskaritzak autonomoki abian jarritako jardunbideak, hain zuzen ere zergadun horri 1,5 milioi euro erreklamatzekoak, bere langileen gauzako ordainsariengatik zergak ez ordaintzeagatik. Kontseilari Goicoechea andreak eta lehendakari Barcina andreak Ikerketa Batzorde honetan eginiko agerraldietan egindako adierazpenetatik, eta lehenengoak Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaile ohi Nieves andreak igorritako mezu elektronikoetatik, argitasun osoz ondorioztatzen da zein den bien nahia eta asmoa, mesede-tratua emateko saiakera argi batean, non Goicoechea andrea Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria izateaz baliatu baitzen lehendakaria horren jakinaren gainean zegoela eta Nafarroako Zerga Ogasunaren irizpidearen aurka:

1. Aipatutako gauzako ordainsariak zergak ordaintzetik salbuetsita mantentzea, zeren eta Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legeak halakotzat kalifikatzen baitzituen 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, baina ez horren aurretiko urteetarako.

2. Gainera, gauzako ordainsari horiengatik zergak ordaindu behar baziren, helburua zen egiazko zenbatekoarengatik ez ordaintzea, hau da, Nafarroako Unibertsitateko matrikularen egiazko prezioarengatik, baizik eta Unibertsitate publiko prezio baliokidearengatik, zeina 8-10 aldiz txikiagoa baita.

Seigarrena. Frogatu da Goicoechea andreak esku-sartzeak eta interferentziak egin dituela Nafarroako Zerga Ogasunean, Conservas Almanaque, S.L. enpresaren kasuan. Enpresa hori kontseilaria bera, egungo kargura iritsi baino lehen, titular zeneko aholkularitza fiskaleko bezeroa izan zen. Halatan, harekin mesede-tratua izateko ahalagin argi bat izan zen, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria izateaz baliatuta. Goicoechea andreak ahaleginak egin zituen

Ogasuneko Ikuskaritzaren jardunbidean bitartekaritza egiteko, jardunbide hura gerora zedin, esanez lan istripu larria izana zutela eta bere antzinako bezeroak izatearen argudioari helduz, haien alde egin zedin.

Zazpigarrena. Goicoechea andrea, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria izateaz baliatuta, Gobernuko lehendakari Barcina andrea jakinaren gainean zegoela eta agian hark berariaz hala jokatzeko adierazita, saiatu zen, arrakastarik gabe, Nafarroako Aurrezki Kutxako kontseilarien eta langileen ordainsariei eta atxikipenei buruzko datuak lortzen. Horretarako, 190 eta F50 eredueta-ko inprimakiak eskatu zituen, noiz eta Nafarroako Aurrezki Kutxako organoetan dietak bidegabeki kobratzeagatik Unión del Pueblo Navarroko agintari politiko eta instituzional garrantzitsu batzuk inputatuta zeuden eta Instrukzio Epaitegian deklaritzen ari ziren testuinguru batean. Agerraldira deitutako Ugalde jaunak berak bidegabetzat jo zuen egindako eskaria.

Zortzigarrena. Sinesgarri gertatzen da Goicoechea andrea, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilaria zenean, saiatu izana, arrakastarik izan gabe, ikuskaritza fiskaleko plana ezagutzen eta lortzen, Nafarroako Zerga Ogasunak haren antzinako bezero batzuk ikuskatu behar ote zituen jakiteko. Jarduketa hori, gertakarietako seigarrenean aipatutakoarekin batera, uztartu beharko litzateke honako inguruabarrarekin: Goicoechea andreak, kontseilari izendatua izan ondoren, ez zuen Merkataritza Erregistroan baja aurkeztu bere bezeroa zen enpresa bateko –Machi, S.L.– administratzaile gisa; eta bere bezero den beste enpresa bateko –Talleres Ezquerria Seamers, S.L.– Administrazio Kontseiluko idazkari gisa ziurtatzen ditu enpresa horren urteko kon-
tuak, Merkataritza Erregistroan ageri den bezala.

Bederatzigarrena. Era berean, frogatuta geratu da Goicoechea andrea esku sartzen saiatu dela ostalaritza-sektoreko zenbait enpresari eginiko auditoria informatikoen bitartezko ikuskaritza-jardunbidean. Zalantzan jarri zuen jardunbide horren legezkotasuna, eta hari buruzko txosten bat eskatu zion departamentuko idazkari nagusi tekniko Ugalde jaunari (2014ko urtarrilaren 20an). Ugalde jaunak txosten partzial bat egin zuen, Nafarroako Zerga Ogasunaren bertsioa kontrastatu gabe. Batzordearen ustez, txosten hori partziala da, zeren eta haren konklusioak oso zalantzazkoak eta erraz ezeztatzeko modukoak baitira azterketa juridiko zorrotz bat eginez.

Are gehiago: azken bost urte hauetan, Idazkaritza Nagusi horrek ez du inongo legezkotasun txostenik egin Nafarroako Zerga Ogasunaren

jarduketei buruz, zeren eta eskumen hori Nafarroako Zerga Ogasuneko Fiskalitate Zerbitzuari baitagokio. Aipatutako kasuan baizik ez da txostenik egin, hain zuzen ere kontseilariak gai horretan egindako esku-sartzei legezkotasun itxura emateko. Bitxia da txostena Nafarroako Zerga Ogasunaren erakunde autonomoaren barruan eskatu beharrean, kontseilariak hartatik kanpo eskatu izana.

Hamargarrena. Halaber, frogatuztat ematen da Nafarroako Gobernuko lehendakari Barcina andreak, telefonoz, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko idazkari nagusi teknikoari txosten bat enkargatu ziola (2014ko otsailaren 20koa) BEZaren itzulketak geroratzeko erabakia legezkoa zela oinarritzen saiatzeko. Eskari hori egitearen xede bakarra zen hura PSO-Eko idazkari nagusi Pérez Rubalcaba jaunari igortzea, azken horrek itzulketak geroratzearen legezkotasuna zalantzan jarria baitzuen. Jarduketa hori nafar guztion diruarekin ordaindutako erakunde publiko baten bitarteko eta baliabideak alderdikieriaz erabiltzea da. Halaber, berriz azpimarratu behar dugu nolako zorrotzasun juridikorik eza dagoen aipatutako txostenean, aurreko egitatean azaldutako arrazoiak tarteko.

Nolanahi ere, Ugalde jaunak adierazitako ustezko legezkotasuna funtsgabea da, zeren eta berandutza-interesak ordaintzeari lotzen baitu eta gaur den egunean, kasu gehienetan, ez da hala korik egin.

Hamaikagarrena. Jardunbide horiek eragimen-trafikoa izateari edo hartatik hurbil egoteari dagokionez –Fiskaltzari dagokio hori kalifikatzea, ez lkerketa Batzorde honi–, honakoa adierazi behar dugu:

1. Aipatutako delitu-tipoaren oinarritzko baldintzak zehazteko, kontuan hartu beharra dago eragimena nagusitasun egoera batetik abiatzen dela, halakotzat ulertuta iradokizun hutsaz harago doan jardunbidea. Kasu honetan, erabilitako hitz eta moduei erreparatuta, ondoriozta daiteke egiazki eta zinez eragin nahi izan dela, hierarkia-maila handiagoak ematen duen nagusitasunezko posizioaz baliatuta, Nafarroako Gobernuko lehendakari edo arloko kontseilari bezala. Eragiteko xedez eginiko jardunbide horren hartzaile izan den funtzionarioaren deklarazioetan, injerentzia-saiakeraz hitz egin zen argiro, eta horixe erakusten du kontseilariaren jardunbidea iradokizun huts bat ez izateak, zeren eta funtzionarioaren jardute-esparruan esku sartzen saiatu baitzen, espediente horien norabide-aldaketa lortu nahian. Bestela esanda, goi-funtzionario horrek sentitu zuen jardunbide horiek kalte egin ziotela bere erantzukizunak bete-

tzeko garaian eduki beharreko erabakitze-askatasunari. Gauza bera gertatzen bide zen Nafarroako Gobernuak lehendakariak hartutako erabakiarekin, Goicoechea andrearen bidez saiatu baitzen isilpeko informazioa lortzen Nafarroako Kutxako langile, aholkulari, hornitzaile eta kontseilariari buruz.

2. Kontseilari karguak ematen dion nagusitasunaz baliatuta eginiko jardunbide horrekin lortu nahi da eragina izatea aipagai ditugun txostenetan eragiteko zuzeneko gaitasuna duen funtzionario batengan, zeren eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea baita. Jardunbide horren hartzaile den pertsonak kargu hori kontseilariak hartarako izendatuta zeukanez, argi dago presiorako eta koakziorako tarte argi bat bazegoela, konfiantza hori, eta harekin batera kargua, galteko beldurra zela eta.

3. Jarduketan horren xedea zen etekin argi, berriazkoa eta ekonomikoki ebaluagarria lortzea, zerga ikuskaritzako jarduera garatzen ari zen irizpidea zalantzan jartzearen bidetik. Eta, oso garrantzitsua dena, lortu nahi zen etekina interes orokorraren ezin kontrakoagoa zen, zeren eta jardunbide horien guztien helburua baitzen hirugarrenen egoera fiskala hobetzea, Ogasun Publikoaren funtzionamendu zuzenetik –segurtasun juridikoa, tratu-berdintasuna edo legezkoatasun-printzipioa bezalakoak bitartez– eratorritako interesaren kaltean.

4. Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendariaren eta kontseilariaren beraren deklarazioak bat datoz esatean jardunbide hori kontzientea, zuzeneko eta borondatezkoa izan zela; hau da, jardunbidearekin helburu bat lortzeko asmo jakin bat zegoen. Horiek ez dira usteak, zeren eta modu frogagarrian ageri baitira aurkeztu den eta kontseilariak berak ukatu duen dokumentazioa.

III. KONKLUSIOAK.

LEHENA.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Goicoechea andreak, bere karguaz baliatuta, injerentziak eta interferentziak egin zituela Nafarroako Zerga Ogasunaren funtzionamendu tekniko eta profesional normal eta autonomoan, honako asmo hauekin:

a) Babestutako datu fiskalak legez kanpo lortzeko asmoarekin.

b) Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Zerga Ikuskaritzaren funtzionamendu autonomo, profesional eta teknikoan tartean sartzeko asmoarekin.

c) Bere aholkularitza fiskaleko bezeroa izandako enpresa batentzat mesede-tratua lortzeko asmoarekin.

d) Egiantzekoa da kontseilariak Ikuskaritza Plana eskatu zuela bere bezero izandako enpresen aldeko mesede-tratua lortzeko asmoarekin.

e) Nafarroako Zerga Ogasunaren irizpide teknikoa aldatzeko asmoarekin, Nafarroako Unibertsitateari egindako ikuskaritza fiskalean, bai ikuskaritzan bertan, bai exijitzekoa zen likidazioaren zenbatekoan, eta ostalaritzaren sektoreko zenbait enpresari egindako ikuskaritza fiskalean ere.

BIGARRENA.

1. Nafarroako Gobernuak lehendakari Barcina Angulo andrea Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren aipatu diren jardunbideen –aurreko legegintzako d) letran jasotakoarena kenduta– jakitun eta erantzunkide izan dela.

2. Nafarroako Gobernuak lehendakari Barcina andrearen eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Goicoechea andrearen jardunbideek ez dutela legedi indarduna bete, honako arauak urratu baitituzte:

– Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 11. artikulua (esku ez hartzeko betebeharra).

– Gobernu Onaren Kodea ezartzen duen martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legeko 2. artikulua. (Printzipio etikoak. Esku ez hartzea printzipio horien aurkako jokabideetan, eta saihestea, halaber, esleituta dituzten zerbitzu publikoak betetzean izan beharreko neutraltasuna zalantzan jartzen duen jardunbide oro).

– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28. artikulua (esku ez hartzeko betebeharra, interes pertsonala, eta abar).

– Arestian aipatutako legeko 47. artikulua (epemugak eta epeak bete beharra).

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 7. artikulua (administrazio egokia izateko eskubidea, arrazoizko epeak, legez ezarritako epeak).

– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 41. artikulua (agintarien eta funtzionarioen betebeharra epe horiek bete eta betearazteko)

– Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 9. artikulua (tributudunen

eskubide orokorrak, diru-sarrera ez bidezkoen itzulketak eta diru-sarreraren itzulketak egokiak ezarritako moduan eta epean eskuratzeko eskubidea, hartarako errekerimendurik egin gabe).

– Arestian aipatutako legeko 88. artikulua (ofiziozko itzulketak, sei hilabeteko epean, betiere).

– Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 53. artikulua (epe barruan ebazteko betebeharrak etikoak).

Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 56, 62, 63, 64 eta 66. artikulua (betebeharrak ez betetzea; goragokoen tolerantzia eza, eta abar).

– Tributuak buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 87. artikulua (epeak eta haiek ez betetzeagatik erantzukizunak).

– Kode Zibileko 1101. eta 1108. artikulua (kalte-galeren ordaina emateko betebeharrak, aurrez betebeharrak ez betetzearen ondorioz; kalte-ordainaren betebeharrak ez du lege-urratzea baliozkotzen).

– BEZari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 61. artikulua, 5/2008 Legegintzako Foru Dekretuan emandako testuaren arabera (ofiziozko sei hilabeteko epea).

HIRUGARRENA.

Nafarroako Gobernuak lehendakari Barcina andreak eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Goicoechea andreak ez dutela jardun Nafarroako Foru Komunitatearen eta bertako herritarren interes orokorren defentsan, eta soilik interes politikoz eta alderdikieriaz jardun dutela, honako gai hauetan Alderdi Popularraren estrategia politikoa jarraituz:

a) BEZaren itzulketak geroratzea, horrek Estatuarekiko doikuntzetan gero eragin dituen ondorio negatiboekin.

b) Alderdi Popularraren Gobernuarekin ituna egitea 2014, 2015 eta 2016. urteetarako defizit- eta zor-helburuei buruz, alde aurretik ezagutzera eman gabe eta horri buruzko inongo adostasunik bilatu gabe, hartara Nafarroaren etorkizuna hipotekatuz.

c) Inolako helbururik eta estrategiarik ez edukitzea Nafarroa hobeki kokatze aldera beharrezkoak litzatekeen erreforma fiskala prestatu eta planifikatzeko.

LAUGARRENA.

Batzordeak frogatuz jotzen ditu Nafarroako Zerga Ogasunaren zuzendari kudeatzaile ohi Nieves Nuin andreak 2014ko otsailaren 11n Parlamentu honetako Ekonomia Batzordeko agerraldian egindako salaketa ia guztiak; gainerako salaketak, berriz, nabarmenki egiantzekoak dira.

BOSGARRENA.

Barcina Angulo eta Goicoechea Zubelzu andren jardunbideetan, lehenengo egitatetik hamargarren egitatera eta lehenengo ondorioetik hirugarren ondorioa aipatutakoetan, Nafarroako Administrazio Publikoaren eginkizunak eta baliabideak erabili direla kudeatzaileen probetxu politikoa eta alderdikieriazkoa lortzeko, eta hori bat datorrela Espainiako Errege Akademiak ustelkeria hitzari buruz ematen duen laugarren adierarekin.

SEIGARRENA.

Ikerketa Batzordean agerraldia egindakoek batzorde horrekin lankidetzan aritzeko legezko betebeharrak dagokionez, frogatu da Barcina andreak Nafarroako Parlamentuan izandako agerraldian izan zuen jarrera oztopatzaile eta manipulatzailea.

Zehazki, jarrera hori erakutsi zuen egindako galdera askori ez erantzunez, estakuruekin erantzunez edo eskatutako informazioa ez ematen saiatuz, eta errealitatea aldarazi nahian, manipulatuak agiriak aurkeztearen bidetik; horixe egin zuen, esate baterako, mezu elektronikoen baten fotokopia bat erakutsi zuenean, goiburua eta edukia zati bat kenduta, hartara ezkatutaz bera izan zela enpresa bati buruzko informazioa eskatzeko kudeaketa batzuk egin zituen, aldi berean foru parlamentari bati leporatuz hain zuzen ere interes hori bera.

ZAZPIGARRENA.

Batzordeak erabaki du Ikerketa Batzordearen konklusioak onetsi ondoren Nafarroako Parlamentuko Mahairi bidaltzea, behar diren ondorioetarako.

Halaber, erabaki du konklusioak, aktak, agerraldien transkripzioak, agerraldia egindako balizko delituen lekukotasun-ekusiak, aktetan jasota daudenak, eta gainerako dokumentazioa Fiskaltzara igortzea, ezagut ditzan, ikertutakotik eta adierazitakotik zigor-erantzukizunen bat erortzearen kasurako.

Batzordeak gaitzesten du Gobernuak lehendakari Barcina andreak eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Goicoechea andreak jardunbidea, eta exijitzen du dagozkien erantzukizun politikoak beren gain har ditzaten;

eskatzen du dimisioa eman dezaten eta Nafarroako Parlamenturako hauteskunderen deia egin dezaten, 2014ko maiatzaren 25erako.

Hala egiten ez badute, konklusio hauek parlamentu-talde guztiak behartuko dituzte kasuko neurriak hartzera, hitza herritarrei itzul dakien, hartara egungo egora kritikoari amaiera emateko.

ZORTZIGARRENA.

Konklusioen laburpen gisa, Batzordeak erabaki du:

1. Epaitutako gertakarietan Nafarroako Gobernuko lehendakari Barcina Angulo andreak eta

lehendakariorde Goicoechea Zubelzu andreak daukaten erantzukizun politikoa deklaratzeko.

2. Politikoki gaitzestea Batzordeak ikertutako egitateetan Nafarroako Gobernuko lehendakari Barcina Angulo andreak eta lehendakariorde Goicoechea Zubelzu andreak izandako esku-hartzea.

3. Nafarroako Gobernuko lehendakari Barcina Angulo andrearen eta lehendakariorde Goicoechea Zubelzu andrearen dimisioak eskatzea.

Jardunbide guztiak –agiriak, deklarazioak eta konklusioak barne–, beren argudioekin, Ministerio Fiskalari igortzea.

Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordearen irizpenaren eztabaidan bazterturiko boto partikularrak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 62.8 artikulua ezarritakoarekin bat, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 13an egindako bileran, Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordearen irizpenaren eztabaidan bazterturiko boto partikularrak.

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Baztertutako boto partikularrak

LEHENA. UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEA

1. Nafarroako kontuen egoera, 2011tik izan duten bilakaera eta defizit-helburua betetzeko politikak aplikatzearekin duen lotura.

Foru araubidea dela-eta, Nafarroako Foru Komunitatean Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 64. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan xedatuaren arabera aplikatuko da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azken xedapenetan hirugarrenean xedatutakoa; hortaz, Foru Komunitatearen defizit-helburuak bi administrazioen artean hitzartuko dira.

Hitzartze hori Batzorde Koordinatzailearen 1/2013 zenbakiko aktan gauzatzen da, non Nafarroako Foru Komunitatearen eta Espainiako Gobernuaren arteko akordioa jasotzen baita. Aipatutako akta Nafarroako Gobernuak Ikerketa Batzorde honi igorri dio, eta bertan finkatu dira Nafarroarentzat 2013, 2014, 2015 eta 2016. urteetarako defizit- eta zor-helburuak.

Horri dagokionez, Ikerketa Batzorde honetan agerraldia egin duten batzuek adierazi dute nola defizit-helburua betetzea helburu politiko bat ez ezik legezko betebeharra ere baden.

Rascón jaunak honako galdera egin du: *“Lehendakariaren lehentasuna defizit-helburua betetzea zen, ez da hala? Gutxienez ere horixe adierazia du Barcina andreak jendaurrean behin baino gehiagotan, baita parlamentu-egoitza honetan ere. Ez da hala?”* Eta Goicoechea andreak hauxe erantzun dio: **“Defizit-helburua betetzea legezko betebeharrak da”**.

Halaber, Sayas jaunak Franco jaunari hauxe galdetu zion: *“Zure ustez egokia izan al zen, ia aginduzkoa, esanen nuke nik, aurrekontu-egonkortasunari buruzko legea 2012an betetzeari buruz hartu zen erabakia?”* Eta Nafarroako Gobernuak Aurrekontuaren zuzendari nagusiak hauxe erantzun zion: *“Lege guztiak dira bete beharrekoak. Ez dut uste planteatu daitezkeen aukera bat denik, gutxienez ere niri dagokidanez, aurrekontu-egonkortasunari buruzko legea nahiz beste edozein lege ez betetzea”*.

KONKLUSIOA: Horrenbestez, frogatuta gelditu da, politika ekonomikoari buruzko desadostasun zilegiez harago, badela lege nazional bat eta Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren arteko itun bat, zeinaren arabera Nafarroak defizit-helburua bete behar baitu.

Behin nabarmendu ondoren defizitaren helburua betetzea legezko betebeharrak dela, eztabaida politikoa egin daiteke helburu hori betetzeko biderik onenari buruz. Nolanahi ere, hori eztabaida politiko arruntaren xedea izaten da, Parlamentu honetako batzordeetan nahiz osoko bilkuretan behin eta berriz gertatu den bezala.

Horietan, parlamentu-talde bakoitzak adierazi du zein den bere jarrera Gobernuak taxututako politika ekonomikoari buruz, eta Legebiltzar honetan izan diren bozketek exekutiboaren erabakiak orientatu eta baldintzatu izan dituzte, bai politika ekonomikoaren arloan, bai arlo fiskalean eta zerga-arloan ere.

Nolanahi ere, Ikerketa Batzordean zehar, Nieves andreak aitortu izan du nolako ondorio larriak ekarriko lituzkeen defizit-helburua ez betetzeak.

Ramírez jaunak Nieves andreari honakoa galdetu zion: *“Baloratu al dezakezu zure esperientziarekin eta, noski, datuei buruz daukazun informazioarekin, zein izanen ziren defizit-helburua hiru hamarrenetan gainditzearen ondorio ekonomikoak?”*. Eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaile ohiak honakoa erantzun zuen: *“Ez dakit zein ondorio izanen zituen. Argi dago gaurko garaian, non European, Espainiako Konstituzioan eta Espainiako araudian aurrekontu-egonkortasunari buruzko lege bat badagoen, ez betetzeak, nire ustez, ondorioak izanen lituzkeela, eta autonomia erkidego batean esku hartu ere egin liteke defizit-helburua ez*

betetzeagatik. *Helburua betetzen ez denean, Estatuko Administrazioak berronkatze-plan bat egitera behartzen du, ikuste aldera nola aurre egin behar dion erkidegoak diru-sarreraren eta gastuen artean dagoen aldeari, baina ez nuke jakinen ondorioak zenbatesten.*

2. Nafarroako Gobernuak lehendakariak emandako jarraibideak, BEZaren itzulketak geroratzekoak, hartara legez ezarritako epeak urratuz; eta jarraibide horiek Nafarroako ekonomian izan dituzten ondorioak.

Puntu honetan finkatu behar den lehenengoa da ea BEZaren itzulketak geroratzeko erabakia legezkoa den ala ez den, eta horri buruzko konklusioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko idazkari nagusi tekniko Ugalde jaunak berak eskaini zuen, UPNko eledunaren galderari erantzunez. Honakoa izan zen galdera, hitzez hitz: *“BEZaren itzulketak sei hilabete iraganda itzultzea, interesak ordainduta, legezko jokabidea da ala legearen aurkakoa?”*

Ugalde jaunak honakoa erantzun zuen: ***“Jokabide guztiz legezkoa da, guztiz zilegia.*** *Administrazioak, legezketasunaren edo zilegitasunaren esparruan jokatzeak, bi baldintza bete behar ditu: lehenbizi, jokabidearen alderdi zehatza erregulatu duen arau bat egotea, eta, bigarrenik, administrazio horrek esparru horren barruan jardutea. Guk Parlamentu honek onetsitako lege-esparrua daukagu, zeina baita Tributuari buruzko Foru Lege Orokorra eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea. Bietan aurreikusten da itzulketa sei hilabeteko epearen barruan egitea, baina automatikoki ezartzen da ezen, epe hori gainditzen bada, Administrazioak itzuli egin beharko dituela zergadunak eskubide dituen kopuruak, dagozkien interesak ere automatikoki ordainduta, eta interesdunak, zergadunak, inongo errekerimendurik egin beharrik gabe.*

Nik ahalegin nahiko handia egin dut aurkitzeko ea auzitegiek horri buruzko epairen bat eman duten, eta ahalegin hori gorabehera, ez dut gaiari buruzko inongo erreferentziarik topatu, zeren eta gai guztiz baketsua baita. Nik uste dut Administrazioak eta zergadunek ez dutela sekula gatazkarik izan gai honi buruz.”

Gainera, Batzordeak eskueran dauka idazkari nagusi teknikoak 2014ko otsailaren 18an egindako txosten juridikoa, non, BEZaren itzulketen geroratzeko estaldura juridikoa ematen duten artikulua aipatu ondoren, honako ondorioa ateratzen baitu:

*“Zergadunari kopuru batzuk sei hilabeteko epea iraganda itzultzea, berandutza-interesak ordainduta, **zuzenbidearen arabera prozedura da guztiz, eta horretan ez dago inongo legezkontraketan-aztarnarik.**”*

Horixe berretsi zuen Nieves andreak berak ere, UPNko eledunak gogorarazi zionean bera izan zela konponbide hori lehendakariari proposatu ziona, aukerakoen artean. García Adanero jaunak honakoa esan dio: *“baina zuk proposatu zenion lehendakari andreak; beraz, ulertzen dut ez zeniola proposatuko legez kontrakoa zen zerbait”,* eta horri Nieves andreak honakoa erantzun zion: ***“ez, legez kontrakoa zergen arloaz kanpoko beste esparru batean legez kontrakoa izateari dagokionez, noski, ez dago inongo ondoriorik.”***

KONKLUSIOA: Horrenbestez, atal honi buruzko lehendabiziko ondorioa da guztiz legezkoa dela BEZa sei hilabete baino geroago itzultzea.

Erabaki horrek Nafarroako ekonomiarako izan dituen ondorioei buruz, Nafarroako Gobernuak Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak jo zuen ***“horrek dakarren inpaktu ekonomikoa, ondorio ekonomikoa, hutsa dela; areago, positibo samarra ere bada.”***

Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak aipatu zuen bezala, bi ikuspegi desberdin landu dira eragin ekonomikoa baloratzeko. Batetik, une jakin batean izandako diru-bilketarekin eta ixte-aurreikuspenekin, konprobatzea zein izan den diru-bilketaren beherakada edo hartan gertatutako diferentzia, itzulketak egitearen edo itzulketak geroratzearen arabera.

Eta beste ikuspegia da une jakin bateko datuekin, ikustea aldea zenbatekoa den, gastu-sabaiaren onarpenean dauden datuekin.

Bi ikuspegietan ateratzen den ondorioa da sortutako eragin ekonomikoa hutsa dela.

Ondoren, hitzez hitz azaltzen dugu zuzendariak horri buruz baieztaturakoa:

SAYAS LÓPEZ JAUNA: *Lehen galdetu dizute, eta une honetarako utzi dute, bai Mauleón jaunak, bai Ayerdi jaunak, BEZaren itzulketak epe kanpo ordaintzearen eragin ekonomikoa buruz. Nolako da eragin hori?*

VALDEMOROS ERRO ANDREA: *Saiatuko naiz gai honetan gauzak argi azaltzen, zeren eta uste baitut gatazka handi samarra eragin duela. Nire zuzendaritza nagusiak eragin ekonomikoa bi ikuspegitik baloratzen du. Lehenengo ikuspegia*

da une jakin batean dagoen diru-bilketarekin eta itxe-aurreikuspenekin, zein den diru-bilketaren beherakada edo hartan gertatutako aldea, itzulketak egitearen kasuan eta itzulketak geroratzearen kasuan. Ikuspegi bat da hori, hain zuzen ere irailaren 27ko agirian dagoena.

Eta beste ikuspegia da une jakin bateko datuekin, berdin zait zein unetan; kasu honetan, jada 2013. urtean zentratuta, ikustea aldea zenbatekoa den, gastu-sabaiaren onarpenan dauden datuekin. Bi ikuspegi desberdin dira. Ez dakit.

SAYAS LÓPEZ JAUNA: Ongi da, bai. Orduan, bi ikuspegi. Aipatu duzu une horretan aurreikuspen bat bazegoela, baina datu errealekin, irailaren 27ko txostenari dagokionez, gehiago zehatz zenezake?

VALDEMOROS ERRO ANDREA: Ikus dezagun: iraileko txostenari dagokionez eta sei hilabeteko epea gaindituta egindako itzulketei dagokionez, eragin ekonomikoa, sortutako eragin ekonomikoa, hutsa da; areago, positibo samarra ere bada. Ikus dezagun. Eta honi denbora-horizonte zabal batekin begiratu behar zaio, zeren eta, gainera, horrela egin baita txostena eta horrela hartu baitzen erabakia. Hau da, ikusi behar da 2012-2015 denbora-esparruaren arabera, zeren eta, gainera, doikuntza fiskalek dauzkaten erregularizazioak, hau da, Nafarroako diru-sarrerek, 2014a eta 2015a hartzen dituzte, eta, horrenbestez, 2014an eta 2015ean eragin positiboak sortzen dira. Eta galdera zehatzari dagokionez, eragin ekonomikoa hutsa da. Eta 2013ko itxierako datuekin eta, logikoa denez, 2014ko eta 2015eko estimazioekin, positibo samarra ere bada.

SAYAS LÓPEZ JAUNA: Eta aipatu duzun beste ikuspegiarekin?

VALDEMOROS ERRO ANDREA: Eta beste ikuspegiarekin, ikus dezagun, beste ikuspegiarekin garrantzitsua da, datu homogeenak izan ditzagun, gastu-sabaiaren onespina. Datuak aipatzen ditut, zeren eta agian zuetako batzuek eskueran baitituzue. Gastu-sabaia, 2013ko BEZarengatiko guztizko diru-bilketari dagokionez, 1.112 milioikoa da. 2013ko urtearen itxiera, aurrerakinarekin, 919 milioikoa da. Hori bai, BEZari dagokion aurrerakinaren zatia kenduta, datua gastu-sabaiaren onarpenarekin homogeenoa izan dadin, eta 2013ko aurrekontuaren itxierarako, 779 milioi ateratzen zaizkit. Horrek esan nahi du BEZarengatiko guztizko diru-bilketak ehuneko 30 egin duela behera. 30 puntu horietatik, 7 puntu esplikatzen dira BEZaren itzulketa atzeratzeagatik. Hori bai, 7 puntu horietatik 5 lortu dira 2012ko diru-sarrera handiagoen modura, eta gainerako bi

puntuak, azaldu berri dizuedan bezala aurreko eraginaz aritzean, 2014ko eta 2015eko erregularizazioaren bidez berreskuratuko dira. 7 puntu.

BEZaren guztizko diru-bilketan jaitzi diren 30 puntu horietatik 19 puntu heldu dira zuzeneko diru-bilketarengatiko estimazioetan izandako jaitzieratik. Estimazio horiek Zerga Ogasunak egiten ditu, eta, noski, eragina dute zuzeneko diru-bilketan bertan eta Estatuarekiko doikuntzetan. Hortik 19 puntu heldu dira. Eta gainerako 4 puntuak, 30era iritsi arte, kalkulua oker egin ez badut, 30 puntura iristeko falta diren 4 puntuak, beste aldagai, kalkulu hauetan eragiten duten beste estimazio eta aldagai batzuetan izandako desbideratzeak dira.

Orduan, berriz diot, BEZaren guztizko diru-bilketan 30 puntuko beherakada, eta horietatik 7 puntu itzulketen eraginetik heldu dira. Horietatik 5 lortu dira 2012ko diru-sarrera handiagoen modura, eta gainerako biak erregularizazioaren bidetik berreskuratuko dira 2013an, barkatu, 2014an eta 2015ean. 19 puntu lotuta daude zuzeneko estimazioaren bidezko diru-bilketan izandako beherakadekin, eta gainerako 4 puntuak, beste aldagai batzuen estimazioekin.

BEZaren itzulketa 6 hilabeteko epea iraganda egiteak Nafarroako ekonomian izan duen eraginari buruz, Nieves andreak berak aipatu du "Goicoechea andreak eduki zuen, bai, zuzeneko diru-bilketan eta doikuntzetan izanen zuen eragin ekonomikoaren kuantifikazioa. **Gainerako eragin ekonomikoak baloratu gabe daude.** Nafarroako Foru Komunitatearen aurrekontua sei hilabetez zergadunen itzulketekin finantzatzeko aritu izanak enplegu-sorreran edo jarduera ekonomikoaren beherakadan izan dezakeen eragina, berriz, kuantifikatu gabe dago".

KONKLUSIOA: Horrenbestez, erabaki politiko baten aitzinean gaude, defizit-helburua betetzeko hartutakoa eta legearen arabera erabat.

Gainerako guztia balizko agertoki desberdinei buruz egon daitezkeen desadostasun politiko zilegien barruan sartzen da, baina ez dago kontseilariaren inongo lege-hausterik.

3.- Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzaile ohiak egindako salaketak, Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak saildi graduan behin eta berriz egindako injerentziei buruzkoak.

Nieves andreak otsailaren 21ean Parlamentuan egindako agerraldian baieztatu zuen berak

erabilitako *“hitzak injerentziak eta esku-sartzeak izan zirela. Ez dut beste kalifikatiborik erabili”*. Horixe erantzun zion Adanero jaunak galdetu zionean ea bere ustez ustelkeria kasu baten aurrean geunden. UPNko eledunaren gainerako galderen aurrean, Nieves andreak berriro esan zuen berak *“injerentziak eta esku-sartzeak”*-aipatu zituela, eta ***“ez dut daturik besterik izan denik pentsatzeko”***. Nieves andreak uneoro ukatu zuen Parlamentuko egoitzan erabili zituen terminoak ustelkeria kasu bati buruzkoak zirenik.

Bestalde, Nieves andreak injerentziak hauteman izateari dagokionez, Ugalde jaunak, UPNko eledunak galdetuta, ea kontseilariak informazio bat eskatzea injerentziatzat jotzen ote zuen, adierazi zuen ez dela inolakorik egon, eta kontseilariak esleituta dauzkan eginkizunen barrenean jokatu zuela *“...badirudi logikoa dela pentsatzea organo batean, kasu honetan Nafarroako Zerga Ogasunean, ardura handienak dituenak eskumen horiek bete ahal izateko alderdi garrantzitsuenetako bat dela informazio nahikoa izatea, erabakiak gaiak ezagututa hartu ahal izateko...”* Adanero jaunak bere galderak egiten jarraitu zuen, eta honakoa egin zuen: *“Kontseilariak bere irizpidea adieraz al dezake Departamentuan egiten diren jarduketari buruz?”* Eta Ugalde jaunak haxe erantzun zion bipil: ***“Bai, argi dago baietz”***.

Ugalde jaunak adierazitakoa lotuta dago kasu honetan garrantzitsua eta funtsezkoa den gai batekin: Ekonomia eta Ogasun kontseilariak dauzkan eskumenak ezagutzea. Ugalde jaunak dio Nafarroako Zerga Ogasuna *“Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomo bat dela, hau da, haren zati bat dela, eta, haren zati izatearen edo atxikipen horren arabera, kontseilariak Zerga Ogasunaren gainean beste zuzendaritza nagusien gainean dauzkanen oso antzeko eskumenak baliatzen dituela... , kasu zehatz honetan 119/2007 Foru Dekretua daukagu, Zerga Ogasunaren estatutuak arautzen dituena, eta lehenengo artikuluan berariaz, propio, dio departamentuko titularrari **erakunde autonomoaren goi-plangintzarako, -zuzendaritzarako eta -tutoretzarako eginkizunak esleitzen”** zaizkiola.*

Ildo beretik, Ugalde jaunak Parlamentuko agerraldian adierazi zuen Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ***“ez duela jardun bere eginkizunen gainetik”***, eta gehitu zuen ezin dela baieztatu haren jardunbidean ***“injerentziarik”*** egon denik.

KONKLUSIOA: Ikerketa Batzordeko agerraldiak bukatuta baieztatu daiteke Foru Ogasunean ez dela ustelkeriarik inolaz ere izan.

Informazio- edo datu-eskariei dagokienez, García Adanero jaunak idazkari teknikoari galdetu zion ea uste zuen *“arau-hauste bat zela bai Gobernu kideek, bai parlamentariak beraiek informazio zehatz bat eskatzea, alde batera utzita hari nolako erantzuna eman behar zaion”*. Ugalde jaunak haxe erantzun zuen: ***“ez, Parlamentu honek oso maiz egiten ditu informazio-eskariak, eta lege-oztoporik ez dagoenean, behar den erantzuna ematen da Parlamentuak informazioa izan dezan, eta eskariari erantzuteko modurik ez dagoen kasuetan, berriz, horrela jokatzeko legezko zailtasun edo ezintasun hori jakinarazten da”***.

Horrenbestez, aurrez azaldu eta adierazi dena dela-eta, talde honek ondorioztatzen du Ekonomia eta Ogasun kontseilariak aurrera eraman dituen jardunbideak ezin direla, inolaz ere, injerentziatzat hartu, zeren eta idazkari nagusi teknikoak adierazi zuenez, bera baita Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren jardunbideen legezketasuna zaintzeko ardura duena, Goicoechea andreak egindakoak sarturik baitaude daukan karguari datxekion eskumenen barruan.

KONKLUSIOA: Horrenbestez, frogatuta gelditu da Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak legearen barruan eta esleituak dituen eginkizunen arabera jardun zuela.

Merca'ó jatetxeko bazkaria

Iruñeko jatetxe ezagun batean Goicoechea andreak, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria zenean, eta Nieves andreak, garai hartan Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea zenak, egin zuten bazkariari dagokionez, zeinaren ondoren Nieves andreak Goicoechea andreari leporatu baitzion ikuskaritza planaren kopia bat eskatu izana bere aholkularitza-enpresako bezero ohiak ziren enpresei mesede egiteko, esan daiteke **Nieves andreak ezin izan duela ez demonstratu, ez ziurtatu kontseilariaren aurka egin zituen akusazio larriak.**

Akusazio horiek direla eta, García Adanero jaunak Nieves andreari, bere agerraldian, galdetu zion ea akusazio larri horien frogarik ba ote zuen. Nieves andreak erantzun zuen honakoa esanez: *“Nik bazkari hartan bizi izan nuena daukat, eta kontseilariak esan zizkidan hitzak esan ditut”*. Gai horrekin segituz, Nieves andreak, frogarik ba ote zuen García Adanero jaunak berriz galdetu ondoren, esan zuen: *“ez dut elkarrizketak grabatzeko ohiturarik”*. Erantzun batzuetan, Nieves andreak dio berak bizi izan zuena Zerga Ogasuneko arduradun garrantzitsu batzuei kontatu

ziola; zehazki, Arana jaunari, Ikuskaritza Zerbitzuko zuzendariari eta Fiskalitate Zerbitzuko zuzendariari. Arana jaunak, parlamentu-agerraldian, berretsi zuen Nieves andreak berri eman ziola garai hartan Landa Garapeneko kontseilaria zenak ustez ikuskaritza plana eskatu izanari buruz.

Baieztape horiek inolaz ere ez dute frogatzen kontseilariak egiazki ikuskaritza plan hori eskatu zuenik. Horri dagokionez, **Goicoechea andreak bipil adierazi zuen, lkerketa Batzorde honetan egin zuen agerraldian, ezen ez bazkari hartan, ez beste inoiz ez ziola inongo ikuskaritza planik eskatu** Nieves andreaki.

Are gehiago: kontseilariak adierazi zuen nolako kontraesana zegoen Nieves andreak salatutako gertakariaren eta errealitatearen artean, zeren eta azken horrek kontseilaria zoriondu egin baitzuen telefono-mezu bidez (zeina Batzordean erakutsitako notario-akta bitartez protokolizatuta baitago), bere nagusi hierarkiko izendatu zutenean, honako hitzekin: **“Zorionak! Erabaki egokia izan da. Musu bat eta eutsi goiari.”**

Halaber, lehendakariaren adierazpenetik ondorioztatzen da ezen, Nieves andreak bere zuzendariari Goicoechea andrearen izendapenarengatik kezka adierazten zien ia garai berean, Nieves andreak berak **gomendatu ziola** lehendakariari Goicoechea andrea izendatzea, Ogasun kontseilaria izateko pertsona ezin hobea zelakoan.

Nieves andrea ez da gauza izan froga bakarra ere aurkezteko kontseilariaren aurka egin zituen akusazio larriak ziurtatzen edo egiaztatzen duenik, eta ez da ahaztu behar arrazoi hori bera dela eta Goicoechea andreak kasuko demanda aurkeztu duela Nieves andrearen aurka. Parlamentu-talde honen iritziz, Nieves andreak injerentziei edo ikuskaritza-planak eskatzeari buruz egindako akusazioak ez dira inolaz ere frogatu. Ustezko elkarrizketa baten berri Zerga Ogasuneko bere menpeko kargudun batzuei kontatu izatea ezin da inolaz ere hartu frogaelementu moduan, zeren eta horrekin egiten den bakarra baita pertsona baten adierazpenak beste batzuei jakitera eman.

KONKLUSIOA: Ezin izan da frogatu Goicoechea andreak Nieves andreaki ikuskaritza Planaren kopia bat eskatu zionik, kontseilariak irmo ukatzen baitu eta Nieves andreak ez baitu frogatzen.

Conservas Almanaque

Goicoechea andrearen agerraldian zehar, Rascón jaunak galdetu zion *“nola jakin zuen nekazaritza-elikagaien enpresa hori ikuskatu egin behar zutela”*, eta Goicoechea andreak erantzun zuen **“zergadunak adierazi ziola”**.

Rascón jaunak galdetu zionean Ogasunean esku-sartzerik egin ote zuen, Goicoechea andreak honakoa adierazi zuen: *“Nieves andrearekin hitz egin nuena izan zen ikuskaritzak zergadun horri hitzordua eman ziola, estualdi batean zegoela eta inguruabar pertsonala kontuan hartzeko, baina gehiago egin nuen bizitzen ari zen inguruabar latzarengatik, beste edozein arrazoiarengatik baino”*.

Kontseilariak bere agerraldian adierazi zuen *“Nieves andrearen bitartez egin zuela... harekin begiramen hori izan zezaten, epe luzeagorik behar bazuen...”*

Goicoechea andreak ez du inongo injerentziarik edo esku-sartzerik egin Almanaque enpresari irekitako ikuskaritza fiskaleko prozesuan. Kontseilariak egin zuena izan zen Nieves andreaki helarazi enpresaren jabeek berari adierazitako kezka. Denok dakigun bezala, kontserba-enpresako langile batek istripu izugarri larria izan zuen ikuskaritza fiskala abian zen bitartean, eta enpresakoek kontseilariarekin hitz egin zuten inguruabar horretaz ohartarazteko eta hark inguruabar hori Zerga Ogasuneko arduradunei helarazteko.

Goicoechea andreak uneoro legearen arabera jardun du, eta hala demostratu da, zeren eta inolaz ere ez baitzuen esku-sartzerik egin ikuskaritza fiskaleko prozesuan, eta espediente Ogasunaren irizpidearen arabera amaitu baitzen. Demonstratuta gelditu dena da Goicoechea andreak Nieves andreaki informazio garrantzitsu bat helarazi ziola, hura kontuan har zezaten agiriak aurkezteko epea zabaltzeari begira, lege-araudian aurreikusita dagoenaren barruan. Formazko malgutasun hori legediaren arabera da, Nieves andreak berak aitortu bezala.

Horrenbestez, Goicoechea andreak ez zuen inongo esku-hartzerik izan espediente horretan. Espedienteak, izan ere, bere bide arrunta jarraitu zuen, kontseilariak haren berri ere izan gabe.

KONKLUSIOA: Ez da egon inolako mesedetraturik ez eragimen-trafikorik, dena legedi indardunarekin bat egin baita. Ogasuneko prozesu guztiak bukatu dira Foru Ogasunaren irizpidearen, prozeduraren eta ebazpenaren arabera, eta ez da inolaz ere batere espedienterik eragotzi.

Goicoechea kontseilariak enpresen egoerarengatik erakutsitako interesa, Nieves andrearen lekukotasunak berak eta aurkeztutako mezu elektronikoek erakutsitakoa, frogatzen duen bakarra da Goicoechea andreak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari gisa zituen eginkizun eta eskumenak zorrotz bete zituela, idazkari nagusi teknikoaren lekukotasunak ere frogatu duen bezala. Inolaz ere ezin da mezu elektroniko horietatik eta Nieves andrearen lekukotasunetik beste interpretaziorik eratorri, eratorterik ez dagoen bezala garai hartan Nafarroako Gobernuko lehendakariorde zen Roberto Jiménez jaunak adierazitako interesetik, zeina frogatu baita Batzorde honek eskura duen 2012ko martxoaren 28ko mezu elektronikoaren bidez, interes hori balizko delitu bat denik edo injerentzia-saialdi bat denik. Bi inguruabar horiek, ordezkari politikoen eta administratuen arteko harremanetan gertatu ohi diren beste batzuetan bezala, enpresa baten egoerarengatik interes bat erakusten dute, zeinak inolako ondoriorik ez baitu gero Nafarroako Zerga Ogasunaren prozeduran. Ogasunak batzorde honi igorritako ziurtagirian jaso bezala, espediente guztiak beti ebatzi izan dira Nafarroako Foru Ogasunaren jardunbidea gidatzen duten prozeduraren eta arauen arabera.

Nafarroako Unibertsitatea

Nafarroako Unibertsitatean eginiko ikuskatzearen inguruan sortu den egoerari dagokionez, **Goicoechea kontseilariaren jardunbidea zuzenbidearen arabera izan da bere luze-zabal guztian.** Kontseilariak ezagutu zuen Unibertsitatean hasitako espedientea, eta posta elektroniko bidez jakinarazi zion Nieves andreari kezka zuela Zerga Ogasunak jarraitutako irizpidea zela-eta.

Goicoechea andreak bere agerraldian dio iruditzen zaiola *“nolabaiteko koherentzia-eza dagoela 2012ko urtarrilaren 1ean arau bat onestearen eta aurreko urteetako egitateak berrikusteari ekitearen artean”*. Kontseilariak jakin nahi izan zuen, Nieves andreari horri buruz galdetuta, zein izan zen Nafarroako Unibertsitatean ikuskatze-prozesu hori hasteko irizpidea.

Kontseilariak, bere eginkizun eta eskumenen barruan, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko idazkari nagusi tekniko Ugalde jaunak adierazi duen bezala, aukera du bere irizpidea emateko bere departamentuan aurrera eraman diren jardunbideei buruz; izan ere, departamentu horren goi-plangintzarako, zuzendaritzarako eta tutoretzarako eskumenak gauzatzea dagokio.

KONKLUSIOA: Kontseilariaren jardunbidea berak zuzentzen duen departamentua zuzendu eta zaintzeko betebeharraren barruan sartzen da, eta, horrenbestez, hark ahalmen osoa du Zerga Ogasunaren jarduketa zehatz bati buruz bere iritzia adierazteko, halako moduan non hori ezin baita inolako injerentziatzat jo.

Horren froga da Nafarroako Unibertsitateari egindako ikuskaritza fiskalak bide arruntetik jarraitu zuela, azken 4 urteetako jardunbideak berrikusi zirela, eta diru-kopuru bat ordaintzeko exijitu zitzaioela. Unibertsitatea bera ez dago ados horrekin, eta dagozkion errekursoak aurkeztu ditu epaitegietan.

Horrenbestez, behar bezala frogatuta geratu dena da Goicoechea andreak legeetan xedatuaren arabera jokatu zuela, bere karguari datxezkion eginkizunak betez, juridikoki eztabaidagarriak diren jardunbide batzuei buruz bere irizpidea adieraziz. Jardunbide horiei buruz, nolana ere, alde batera edo bestera epaitegiek erabaki beharko dute.

Konklusio hori oraindik ere argiago uzte aldera, parlamentari Ayerdi jaunak egindako galdera bat eta Nieves andreak erantzun ziona transkribatu ditugu. Erantzun horretan Nieves andreak dio Goicoechea andreak arau-aldaketa batean oinarritutako bere irizpidea adierazi besterik ez ziola egin, eta ez zuela balioarazi nahi izan zergadun horren aldekoagoa zen irizpiderik.

“AYERDI OLAIZOLA jauna: Ikus dezagun: erabateko bipiltasunez esan al daiteke jarrera hori defendatzean Goicoechea andrea sakonean esaten ari zela hobe zela, bere ikuspuntutik, Ogasunak diru-kopuru jakin bat ez biltzea eta zergadun pribatu horrek diru kopuru hori ordaindu behar ez izatea?”

NIEVES NUIN andrea: *“Ez, nik uste dut bera arau-aldaketan oinarritzen zela, eta preskribatu gabeko urteen erregularizazioa egitearena zela ados ez zegoen alderdia.”*

Ostalaritza-establezimenduak

Iruñeko ostalaritza-establezimendu batzuetan egindako ikuskaritza fiskalei dagokienez, Goicoechea kontseilariak haiek ezagutu zituen Nieves andrearekin azaroan izan zuen bilera batean. Azaldutakoak entzun ondoren, kontseilariak mezu elektroniko bat bidali zion Nieves andreari, egindako ikuskaritzak zirela-eta kezka adierazteko, eta hartan honakoa ere idatzi zuen: *“gisako establezimenduetan horrela jarduten den lehenengo aldia denez, agian komenigarria izanen zen aurrez nik horren berri eduki izana. Ahal bada, gustatuko litzaidake jakitea nolako*

protokoloa erabili den jardunbide hori gauzatzeko, argi izanda ere bera zuzen gauzatu izanen dela”.

Aditzera ematen da ezen kontseilariak, gauzatutako jardunbideez kezka duenez, Nieves andreari eskatzen diola ezen, ahal badu, erabilitako protokoloa eskura diezaion, alde zuzenetik adierazita zalantzarik ez duela haiek zuzen gauzatu izanari dagokionez.

Goicoechea andreak txosten juridiko bat enkargatu zion Ugalde jaunari, gauzatutako jardunbideen norainokoari buruz; bereziki nabarmenduta bititokiaren bortxaezintasunari zegokiona. Inguruabar hori elkarte profesional batzuetako arduradunek salatu zioten Nafarroako Zerga Ogasunari, Batzorde honi ekarritako dokumentazioan jasota dagoen bezala.

Goicoechea andreari bereziki kezkarria iruditu zitzaion ikuskaritzak nola gauzatu ziren, eta nabarmendu zuen Nieves andreak berak esana ziola zerbait “berritzailea” zela, zeren horrelako ikuskaritzak sekula egin gabe baitzeuden ostalaritzan, foruzain uniformedunak bertan egonik.

Goicoechea andreak Nieves andreari igorritako bigarren mezu elektronikoa batean adierazi zion kezka zuela “neurri horrek ekar dezakeen alarmari buruz, ostalaritzaren sektorean ez ezik, beste sektore batzuetan ere”.

KONKLUSIOA: Goicoechea kontseilariak bere karguari datzekion eskumenen barruan jardun du, departamentuaren plangintza, zuzendaritza eta zaintza gorena eginez. Gure ustez, Goicoechea andreak bere iritzia eman zuen bera nagusi hierarkiko duen erakunde batek jadanik egindako jarduketa zehatz bati buruz. Bere legezko eginkizunen eta betebeharren esparruan, prozeduraren ezinbesteko segurtasun juridikoa eskatu besterik ez zuen egin kontseilariak.

Goicoechea andreak ez zuen behin ere eragotzi ostalaritzaren sektorean egindako ikuskaritza fiskaleko prozesua; horren froga da Zerga Ogasunaren irizpideen arabera bukatu zela ikuskapena.

4.- Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak eginiko salaketak, Nafarroako Gobernuko lehendakariak eta kontseilariak legezko babesa duen informazio pertsonala eskatu izanari buruzkoak.

Ikerketa Batzordearen aurreko lehenengo agerraldian, Idoia Nievesek honakoa adierazi zuen: “2013ko apirilaren 15ean, kontseilariarekiko asteroko bileran, eskatu dit Nafarroako Aurrezki

Kutxaren 190 ereduko (lan atxikipenen urtealdi-aitorpena) eta F50/347 ereduko (hirugarrenekin egindako eragiketen urtealdi-aitorpena) aitorten kopia bat, ahal den antzinenetik hasita. Aitorpen horiek bidea ematen dute jakiteko entitateko enplegatuei eta kontseilari guztiek zenbateko ordainsariak jaso dituzten, bai eta hornitzaile eta bezero guztiek egin dituzten 3.005 eurotik gorako kobrantzak eta ordainketak ere, beste eredu batzuetan informatu behar ez direnak...”

Halaber, eta gai horrekin lotuta, otsailaren 21ean, Ikerketa Batzordean, Idoia Nievesek adierazi zuen ezen, bere “*kabalen*” arabera, Yolanda Barcina lehendakariak interesa zuela Nafarroako Kutxako ordainsariei eta enplegatuei buruzko informazioa jasotzeko, “*Auzitegi Gorenak inputatua suertatuz gero, bere defentsa juridikoa prestatze aldera*”.

Gero, Aralar-Nabaiko parlamentari Zabaleta jaunak galdetu zionean ea ba ote zekien Nafarroako Kutxari buruzko informazio hori zergatik eskatu zen, Nieves andreak esan zuen “ezetz”, baina bere “*kabalak*” bazeuzkala.

“*Goicoechea andreak esan zidana izan zen lehendakariaren interesekoa zela*.” “*Baina nik ez dut ezagutzen*”, gehitu zuen.

Bai Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria, bai Nafarroako Gobernuko lehendakaria bat etorri dira esatean ez zutela daturik eskatu Nafarroako Kutxako kontseilarien ordainsariei buruz.

Ekonomia eta Ogasun kontseilari eta Gobernuko lehendakariorde Lourdes Goicoecheak, UPNko eledun García Adanero jaunak galdetuta, honakoa zehaztu zuen: “*nik egindakoa kontsulta bat izan zen, ikusteko aitorten jakin batzuek noren eskuetan egon behar duten. (...). Une hartan, Nafarroako Aurrezki Kutxa pil-pilean zegoen inguruabar askorengatik, eta nik kontsulta bat egin nuen (...)*”.

Halaber, UPNko eledunak galdetu zionean ea Ogasuneko zuzendari ohiari eskatu zion Nafarroako Kutxari buruzko daturik, zehazki 190 eta F50 eredukorik, **kontseilariak honakoa erantzun zuen: “ez”.**

Bai Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilari Lourdes Goicoechea andreak, bai Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcinak, foru Parlamentuan egindako agerraldi banatan, adierazi zuten ez zutela daturik eskatu Nafarroako Kutxako kontseilarien ordainsariei buruz.

Otsailaren 24an, Lourdes Goicoecheak honakoa adierazi zuen: **“Sekula ez dut inongo datutarako sarbiderik izan. Datu bat behar banuen, eskatu egiten nuen. Halakorik baldin bazegokidan, eman egiten zidaten, eta, ez bazegokidan, ez zidaten ematen”**.

Ildo horretatik, gehitu zuen Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzaile ohiari ez ziola eskatu Nafarroako Kutxako kontseilariari ordainsariei buruzko formularioak ezagutzerik, baizik eta eskatu zuela **“noren eskuetan zeuden”** jakitea. *“Ez nion daturik eskatu, baizik eta nork eduki behar zituen agiri jakin batzuk”*, zehaztu zuen.

“Lehendakariak, une jakin batean, bere datu pertsonal bat eskatu zidan, baina ez zidan gehiagorik eskatu. Eskatu zizkidan berak jasotako ordainsariak, eta bere errenta-aitorpena bertara jotzeko esan zion. Uste dut dietak itzultzerakoan izan zela”, baieztatu du Goicoechea andreak.

Bestalde, otsailaren 25eko agerraldian zehar, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcinak halaber baieztatu zuen, kontseilariak egin zuten bezala, ez zuela Nafarroako Kutxako kontseilariari ordainsariei buruzko daturik eskatu.

KONKLUSIOA: Idoia Nievesen baieztapenak, Lourdes Goicoechea kontseilariak Nafarroako Kutxari buruzko informazioa eskatu izanari buruzkoak, ezin dira oinarritu ez frogetan, ez agirietan.

KONKLUSIOEN LABURPENA

1.- Nafarroako Foru Ogasunean ez da egon ez ustelkeriarik ez legekontrakotasunik.

2.- Ez Nieves andreak, ez Batzorde honetan agerraldia egindako beste inork, ez diote ustelkeriarik leporatu ez kontseilariari ez Gobernuko beste ezein karguri. Ez dago batere frogarik Foru Ogasunean ustelkeria-kasu batez hitz egin ahal izateko.

3.- BEZa 6 hilabete baino geroago itzultzea guztiz legezkoa da.

4.- Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak legezkonotasunaren barruan eta esleiturik dituen eginkizunekin bat jardun zuen.

5.- Ezin izan da frogatu Goicoechea andreak Nieves andreari Ikuskaritza Planaren kopia bat eskatu zionik, kontseilariak irmo ukatzen baitu eta Nieves andreak ez baitu frogatu.

6.- Ez da egon inolako mesede-traturik ez eragimen-trafikorik, dena legedi indardunarekin bat egin baita. Ogasuneko prozesu guztiak bukatu dira Foru Ogasunaren irizpidearen, prozeduraren eta

ebazpenaren arabera, eta ez da inolaz ere batere espedienterik eragotzi.

7.- Kontseilariaren jardunbidea berak zuzentzen duen departamentua zuzendu eta zaintzeko daukan betebeharraren barruan sartzen da, eta, horrenbestez, ahalmen osoa du Zerga Ogasunaren jarduketa zehatz bati buruz bere iritzia adierazteko, halako moduan non hori ezin baita inolako injerentziatzat jo.

8.- Idoia Nievesen baieztapenak, Lourdes Goicoechea kontseilariak Nafarroako Kutxako datuei buruzko informazioa eskatu izanari buruzkoak, ezin dira oinarritu ez frogetan, ez agirietan.

BIGARRENA. NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRA

Parlamentu-talde Popularrak honako ondorio hauek atera ditu, Nafarroako Ogasunaren egoerari buruzko Ikerketa Batzordean jorratutakoa, bertan agerraldia egindakoek emandako lekukotasunak eta jasotako dokumentazioa ikusita:

Hasteko eta behin, kontuan hartuta auzi honen garrantzi berezia, Parlamentu-talde Popularrak jasota utzi nahi du, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari ohiak Batzordean emandako lekukotasunak ezbairik gabe frogatu duen bezala, berak parlamentu-egoitzan birritan egindako salaketa larriak ez zirela inolaz ere ustelkeriakasuei buruzkoak, baizik eta, 2014ko otsailaren 11ko eta 21eko agerraldietan berak hitzez hitz esandakoaren arabera, “injerentzia” eta “esku-sartzei” buruzkoak.

1. Nafarroako kontuen egoera, 2011tik izan duten bilakaera, eta defizit-helburua betetzeko politikak aplikatzearekin duen lotura.

Lehen atal honen jarduketa-esparruak bi aurrekontu-ekitaldi hartzen baditu ere, Ikerketa Batzordean defizit-helburuarekin lotutako gaietan jarri da azpimarra.

Beti ere, nabarmendu beharra dago Kontuen Ganberak jadanik egin daukala Nafarroako Gobernuaren 2011ko eta 2012ko kontuen auditoria.

Nafarroako sektore publikoaren organo fiskalizatzaileak ondorio bera atera du bi kasuetan: “Foru Administrazioaren finantza-jarduera, oro har, legezkonotasun printzipioarekin bat egiten da”.

Defizit-helburua betetzeari buruzkoa Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak arautu zuen.

lido horretatik, Gobernuko lehendakariak berak behin eta berriro adierazi du defizit-helburua betetzea zela bere gobernuaren jardun politikoaren helburu nagusietako bat.

Parlamentu-talde Popularrak, beraz, puntu honi dagokionez ez du inolako legezkontrakotasunik ikusten Nafarroako Gobernuaren jardunbidean.

Besterik da parlamentu-talde honi zer balorazio merezi dion defizit-helburua betetzearen Nafarroako Gobernuak egindako kudeatze-lanak. Hori dela-eta, gure ustez ez da egon aurrekontu-plangintzarik eta -kontrolrik, gure taldeak egindako galderei erantzunez emandako honako lekukotasun hauetan egiazta daitekeenez:

– Nafarroako Gobernuko lehendakariordearen deklarazioa:

1. “Gainera, 2012ko ekitaldian ere hasia zen jarduten aginte-koadro bat hileko kontrola egiteko, eta 2013an aginte-koadro horrek etengabe funtzionatu du hilerok, bai diru-sarreraren ikuspuntutik, bai gastuaren ikuspuntutik aztertze aldera zer ari den gertatzen eta zer aurreikuspen egiten goazen”. Transkripzioaren 107. orrialdea.

2. “(...) Ni departamentura heldu nintzenean ikusten zen zein zen joera; alegia, egindako aurreikuspenak ez zirela betetzen ari, diru-bilketa gero eta txikiagoa zela. Maiatzaren 7ko akordioa indarrean sartu zen, eta horrek ere eragin handia izan zuen diru-bilketa egiteko moduan”. Transkripzioaren 106. orrialdea.

– Aurrekontuaren zuzendari nagusiaren deklarazioa.

1. “2012an oraindik ez geneukan ezarrita defizit-helburua ezartzeko aldagaien gaurkotze-prozesua. 2013tik aitzina, berriz, bai; hilerok, arduradun guztiek informazioa igortzen digute, bai diru-sarrerena, bai gastuena, bai kontabilitate nazionalako doikuntzen aurreikuspenak, halako moduan non orain hilerok daukagun hori. Garai horretan, beharrezkotzat jotzen genuen neurrian egiten genuen”.

Transkripzioaren 51. orrialdea.

2. “Nik uste dut garrantzitsua dela, Idoia Nievesek bere agerraldian adierazi zuen bezala, bilera hori ez zela berriaz gai hori jorratzekoa; hau da, bilera horretara ez genuen eraman alternatiba baloraturik. Bilera horretan egoera komentatu genuen, zeren egoera oso kezagarria zen, eta lehenbizikoz mahai gainean jarri ziren zeuden aukerei buruzko iritzia”. Transkripzioaren 52. orrialdea. Zuzendari nagusia 2012ko urriaren 10ean egindako bilera bati buruz ari da.

Lekukotasun horiek ikusita, orobat ondorioztatzen da defizita kontrolatzeko neurriak modu inprobisatuan hartzen zirela, berandu eta modu isolatuan, izan zitzaketen ondorioak kontuan hartu gabe.

2. Nafarroako Gobernuko lehendakariak emandako jarraibideak, BEZaren itzulketak geroratzekoak, hartara legez ezarritako epeak urratuz, eta jarraibide horiek Nafarroako ekonomian izan dituzten ondorioak.

Atal honetako auzi nagusia da aztertzea ea legezkoa den enpresei BEZaren itzulketa geroratzea, alde batera utzita erabakia zer karguk edo agintaririk hartu zuen azken batean.

Frogatuta gelditu da BEZaren itzulketak geroratzeko neurria 2011ko ekitaldian ere aplikatu zela; Nafarroako Gobernuak UPN-PSN koalizioak osatzen zuenean, hain zuzen ere.

Horren legezkontrasunari dagokionez, Batzordearen jardunean zehar frogatuta gelditu da legezkoa dela BEZaren itzulketak geroratzea, Foru Komunitatean zerga-arloan egun dagoen araudian halaxe jasotzen baita.

Halaber, geroratzea legezkoa dela frogatzen du Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko idazkari nagusi teknikoak –Nafarroako Gobernuko lehendakariak eskatuta– egindako txostenak, zeina Batzordeko kideei eman baitzitzaien.

Orobat frogatu da, bai agiri bidez, bai lekukotasun bidez ere, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaile ohiaren beraren proposamenetako bat izan zela BEZaren itzulketa geroratzea. Horixe proposatu zuen Nafarroako Gobernuko lehendakariarekin eta lehendakariordearekin eta “Gobernuko talde ekonomikoa” deitutakoarekin 2012ko urriaren 10ean egindako bileran.

Azaldutako hori guztia gorabehera, Parlamentu-talde Popularrak uste du honako gogoeta hauek egin beharra dagoela BEZa geroratzeari dagokionez:

– Neurria, defizit-helburuari buruzko legezko agindua betetzera bideratuta zegoen arren, ekonomiaren, enpresen eta lanaren ikuspuntutik nafarrek egoera izugarri zail bat bizi zutenean hartu eta aplikatu zuen Nafarroako Gobernuak.

– Horri dagokionez, Parlamentu-talde Popularraren aburuz, erabakia hartu behar izan zen datengatik beharbada, ukitutako enpresengan izan zezakeen eragina behar bezala aztertu, baloratu eta ponderatu gabe egin zen BEZaren

itzulketaren geroratzea; gainera, kontuan hartzekoak dira enpresa horiek zituzten zailtasun ekonomiko eta finantzarioak nahiz kreditua lortzekoak.

Hortaz, eta neurria etorkizunean berriro ere hartu beharko balitz, Parlamentu-talde Popularrak uste du alde aurretik eragin ekonomikoa baloratu beharko litzatekeela, eta neurri horrek ukitutako enpresengan izan dezakeen eragina mugatzeko prozedura bat ezarri.

Gainera, Foru Administrazioari eskatzen diogu epe barruan ordain ditzan BEZaren itzulketaren geroratzeak sor ditzakeen berandutze interesak.

3. Foru Ogasunaren zuzendari kudeatzaile ohiak egindako akusazioak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak Foru Ogasunaren independentziaren aurka etengabe esku sartzeari –saialdi mailan– buruzkoak.

Parlamentu-talde Popularraren konklusioak:

– Gure ustez, argi dago ez dagoela egindako salaketak oinarritzeko froga sendorik, Ogasunaren aurka behin eta berriro egindako injerentzien gaineko salaketa larriei buruz Ogasuneko zuzendari ohiak Batzordean emandako lekukotasunari dagokionez nahiz aurkeztutako informazioari dagokionez.

– Ez da araudi indardunaren aurkako agindurik eman.

– Ezin da “injerentzia” delako ezertaz hitz egin. Kontseilariaren jarduketak bere karguaren berezko eskumenen parte dira.

Kontseilariak emandako lekukotasuna gorabehera, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko idazkari nagusi teknikoak emandako lekukotasunak ere bermatzen du ez dela injerentziarik egon. Idazkari nagusi teknikoak orobat adierazi zuen ezen, berak zekienaren arabera, kontseilaria ez zela bere eginkizunetatik eta eskumenetatik harago joan.

MARTÍN DE MARCOS jauna: Departamentuan izan duzun lan-eskarmentua eta aipatu duzun eskumen-esparrua aintzat hartuta, uste duzu, pentsatzen duzu edo badakizu Goicoechea kontseilaria bere eginkizunetatik harago joan ote den inoiz Gobernuan egon den bitartean?

UGALDE ZARATIEGUI jauna: Nik dakidala, ez. Transkripzioaren 18. orrialdea.

UGALDE ZARATIEGUI jauna: Pentsatzen du badagoela lege-esparru behar adina esplizitua, Zerga Ogasuna erakunde autonomoari dagokionez kontseilariak dituen eskumenen gainekoa, eta

berriro diot: kontseilariari esleitzen zaizkion eskumenak eta, gainera, jarduera hori sustatu, ikuskeratu eta planifikatzeko betebeharrak aintzat harturik, nire ustez ezin da ondorioztatu jardunbide horretan injerentziarik egon denik. Transkripzioaren 18. eta 19. orrialdeak.

– Kontseilariak emandako aginduek edo jarraibideek ez zuten gerarazi edo aldatu abian zen espedienterik.

MARTÍN DE MARCOS jauna: Agindurik eman al zenuen inoiz, abian zen espedienterik erabakitzeke edo aldatzeko?

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGUKO KONTSEILARIA (Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea): Ez (...). Transkripzioaren 108. orrialdea.

– Agindu edo jarraibide guztiek errespetatzen dute araudi indarduna.

MARTÍN DE MARCOS jauna: Azken galdera bat eginen dizut, Ugalde jauna. Nieves andreak berretsi zuen ezen, Goicoechea andreak Nafarroako Zerga Ogasunean ustez eginiko injerentziak gorabehera, prozedura guztiak lege-araudiaren arabera egin zituela beti Zerga Ogasunak. Zuk dakizuneraino, hori horrela al da?

UGALDE ZARATIEGUI jauna: Bai, bai. Transkripzioaren 19. orrialdea.

– Kontseilariaren asmoa ez zen izan hirugarrenei mesede egitea, ez eta berarentzako onurarik ateratzea ere.

MARTÍN DE MARCOS jauna: Hirugarrenei mesede egiteko asmorik izan al zenuen inoiz?

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGUKO KONTSEILARIA (Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea): Ez ba, ez dut halako asmorik eduki.

Transkripzioaren 108. orrialdea.

4. Foru Ogasunaren zuzendari kudeatzaile ohiak egindako akusazioak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak eta Nafarroako Gobernuko lehendakariak legezko babesa duen informazio pertsonala eskatu izanari buruzkoak.

Arestikoarekin gertatzen den moduan, atal honetan jasotzen dira Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari ohiak parlamentu-egoitzan egindako salaketarik larrienak.

Informazio babestua eskatu izanari buruzko salaketak bi gai desberdini buruzkoak dira. Alde batetik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren

ikuskaritza fiskaleko plana. Beste alde batetik, Nafarroako Kutxako kontseilariei eta langileei buruzko datuak.

Kontuan hartuta Batzorde honetan aurkezturiko informazioa, eta agerraldia egin dutenei entzun ostean –horien lekukotasuna egiari lotu behar zaio–, Parlamentu-talde Popularrak honakoa uste du:

– Argi dago ez dagoela egindako salaketak oinarritzeko froga sendorik, Nafarroako Kutxarekin zerikusia duten datuei nahiz ikuskaritza fiskaleko planari buruz Ogasuneko zuzendari ohiak Batzordean emandako lekukotasunari dagokionez nahiz hark aurkeztutako informazioari dagokionez.

Froga sendorik eza orobat aplikatzen ahal zaio ikuskaritza planari dagokionez Ogasuneko zuzendari ohiak egin zizkion adierazpenak direla-eta Ogasuneko kontrol eta plangintzaren zuzendari ohiak Batzordean emandako lekukotasunari.

BELTRÁN VILLALBA andrea: Ala irmo, ala behar bezainbat, halako salaketa larri bati dagokion moduan.

ARANA SORET jauna: Nik dakidan gauza bakarra da Idoiak esan zidana, besterik ez.

– Ogasuneko zuzendari ohiaren lekukotasuna, bere salaketak berresteko frogarik ez zeukala onartzen baitu.

MARTÍN DE MARCOS jauna: Besterik gabe, tartean... Parlamentu-egoitza honetan jada adierazi duzu ezin duzula frogatu halako salaketa larria, bazkarian zehar gertatutakoari buruzkoa. Zure agendan eskuz idatzitako transkripzioaz gain, ez al duzu bazkari hori eta baieztapen hori frogatzeko beste sistematik?

NIEVES NUIN andrea: Ez, ez daukat. Transkripzioaren 70. orrialdea.

– Nafarroako Gobernuako lehendakariordearen lekukotasuna, zeinaren bidez ukatzen baitu ikuskaritza fiskaleko plana eskatu izana.

MARTÍN DE MARCOS jauna: ... Berresten al duzu ez zeniola behin ere eskatu Idoia Nievesi ikuskaritza planaren kopiarik?

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGUKO KONTSEILARIA (Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea): Bai, berresten dut. Transkripzioaren 103. orrialdea.

– Nafarroako Gobernuako lehendakariaren eta lehendakariordearen lekukotasuna, zeinean ukatzen baita Nafarroako Kutxari buruzko datuak eskatu izana.

MARTÍN DE MARCOS jauna: Edozein modutan, galdetzen dizut, eta erantzun diezadakezu, bai ala ez esanda, edo baieztatuta edo ukatuta, mesedez, berresten al duzu, ala ukatzen al duzu, Barcina andreak interesa edukitzea 190 edo F50 ereduetan ikus daitezkeen datuak eskuratzeko?

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGUKO KONTSEILARIA (Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea): Bai, bai.

MARTÍN DE MARCOS jauna: Berresten duzu ala ukatzen duzu?

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGUKO KONTSEILARIA (Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea): Ukatzen dut.

MARTÍN DE MARCOS jauna: Berresten duzu ala ukatzen duzu eredu horien kopia zeuk eskatu izana?

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGUKO KONTSEILARIA (Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea): Ez nuen kopiarik eskatu. Transkripzioaren 111. orrialdea.

Froga sendorik eza egozten zaio, orobat, Ogasuneko zuzendari ohiaren eskariz Ogasuneko Fiskalitate Zerbitzuak Nafarroako Kutxari buruzko datuen konfidentzaltasunaren gainean egindako ohar-agiriari. Ohar-agiri horrek erantzun generikoa ematen dio “Nafarroako Kutxak zerga-administrazioan aurkeztutako deklarazioekin zerikusia duten datuen balizko eskari (...)” bati, eta ez eskari zehatz bati.

Horrenbestez, agerraldia egin dutenek emandako azalpenak nahiz ohar-agiriaren edukia bera ikusita, zalantzak ez dira erabat argitu motibazioari eta helburuei dagokienez.

Prestazio Handiko Trenari buruzko erabakia.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 13an egindako bileran, Prestazio Handiko Trenari buruzko erabakia onetsi zuen, Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu zuen mozio batetik heldu dena, zeina 2014ko urtarriaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak uste du azpiegitura horien ezaugarri teknikoek modernizatzeko planteamenduak bermatu behar dituztela, etorkizunari begirakoak, Nafarroari behin betiko aukera emate aldera Europako gainerako lurraldeekin trenbidez lotuta gera dadin".

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da prestakuntza-ekintzak bidera ditzan helduen hezkuntzan esku hartzen duten agenteentzat.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da prestakuntza-ekintzak bidera ditzan helduen hezkuntzan esku hartzen duten agenteentzat".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak uste du bizitza osoko prozesu bat dela hezkuntza, eta, halatan, eskualde guztietan herritarrek egindako eskariari erantzuteko bideak prestatu behar direla azpimarratzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

a. Helduentzako Hezkuntzaren Liburu Zuria taxutu dezan 9 hilabeteko epean, etapa horren berezitasunak kontuan hartuko dituen eta eskueran dauden baliabide eta beharrian guztiak jasoko dituen.

b. Helduen Hezkuntza arautzen duen 19/2002 Legea gara eta egokitu dezan; hartara, ikastetxeen adinako eremu-egitura bat eta helduen hezkuntzako departamentu arteko batzordea sortuko ditu.

c. Aukera eman dezan helduen oinarriko hezkuntzako ikastetxe publikoek ziurtagiriak egin ahal izan ditzaten ematen dituzten ikasketa guztiei buruz.

d. Helduen hezkuntzari, bereziki Orientazioaren eta Pedagogia Terapeutikoaren arloetan, baliabideak eman diezazkion, ikasleen behar bereziei erantzun ahal izateko.

e. 19/2002 Legeko 3. artikulua betetzeko, prestakuntza-ekintzak bidera ditzan helduen hezkuntzan esku hartzen duten agenteentzat eta susta dezan esparru horretako curriculum-, metodologia-, teknologia- eta didaktika-berrikuntzei buruzko proiektuen lanketa.

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko lehendakaria gaitzesten da, egiazkotzat jo baitu Guardia Zibilaren ustezko txosten bat, Barne Ministerioak dioenez existitzen ez dena, eta Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio erantzukizunak argitu ditzan, kargu instituzionalek emandako informazio okerrak direla eta.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko lehendakaria gaitzesten da, egiazkotzat jo baitu Guardia Zibilaren ustezko txosten bat, Barne Ministerioak dioenez existitzen ez dena, eta Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio erantzukizunak argitu ditzan, kargu instituzionalek emandako informazio okerrak direla eta".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakaria gaitzesten du, egiazkotzat jo baitu Guardia Zibilaren ustezko txosten bat,

Barne Ministerioak dioenez existitzen ez dena, eta hura alderdikieriaz erabili duelako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio urgentziaz joka dezan erantzukizunak argitzeko, kargu instituzionalek emandako informazio okerrak direla eta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio behar diren neurriak eta jarduerak gara ditzan, Nafarroako hezkuntzako sistema publikoari, hezkuntza komunitateari, irakasleei, hezkuntzako ikuskapen zerbitzuari eta, bereziki, D ereduko irakasle eta ikastetxeei egin zaien kaltea arintzeko, ahal den neurrian".

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen edo herrilurretako bideen arauketa homogeen bat adostu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen edo herrilurretako bideen arauketa homogeen bat adostu dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lantalde bat sor dezan, modu homogeen arautze aldera Nafarroako basobideen edo herrilurretako bideen erabilera.

2. Irizpide horiek 6 hilabeteko epean presta ditzan, toki entitateek aplikatu ahal izateko".

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Gobernu Irekiari eta Teknologia Berriei buruzko erabakia.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 13an egindako bileran, onetsi zuen Gobernu Irekiari eta Teknologia Berriei buruzko erabakia, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen mozio batetik heldu dena, zeina 2014ko otsailaren 14ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, honetara dituen eskumenak kaltetu gabe, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren barruan egitura bat mantendean, Gobernu Irekiaren eta Teknologia Berrien Zuzendaritza Nagusiaren eskumen eta helburuak bere gain hartuko dituen, eta orain arte zeuzkan eginkizunekin".

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa zein urrats egin behar dituen Nafarroako Gobernuak, saihesteko foru erkidegoan ezar dadila larrialdikoa ez den osasun garraioaren koordainketa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko martxoaren 13an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Samuel Caro Sádaba jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera zen jakiteko zein urrats egin behar dituen Nafarroako Gobernuak, saihesteko foru erkidegoan ezar dadila larrialdikoa ez

den osasun garraioaren koordainketa, eta 2014ko urtarrilaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

